



m
Mondragon
Unibertsitatea
Col Estola
Politeknika

Goierriko Campusa

ORDIZIA

**MEKANIKAKO INGENIARITZA
GRADU DUALA**

ATE IREKIAK
OTSAILAK 8 · 10:30

**Eman
izena**



LAKUNTZA- UTZITAKOIA

"Bestela, zer etorkizun dugu?"

Gazte baten galdera da hori. Eskubide Sozialen Kartak lan, pensio eta bizi duina aldarrikatzeko greba orokorra deitu zuen atzo. Antolatutako mobilizazioetako batean izan ziren hainbat pertsonarekin hizketatu ginen, haien bizi egoeren berri izateko

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Gurean lana gizarteratzeko ezinbesteko elementua da. Lanaren edo lan faltaren araberakoa da norberak gizaratean duen presentzia. Garai batean bizi baldintza batzuk bermatzen zituen lana izateak. Gaur egun, ordea, ez da horrela. Prekarietate hitza zer den ikasi dugu. Eta batzuk lehen pertsonan bizi dute, zuzenean, edo zeharka. Horregatik, atzoko greba orokorrak jende guztia ukitzen dituen eskaerak zituelako, errazagoa izan zitzaigun jendearen lekukotzak jasotzea.

Jendeak mobilizazioetan parte hartzeko makina arrazoi ditu, haietako batzuk jaso genituen.

Atzo goizeko manifestazioan zegoen Jose. Jubilatua da. Bere ustez, "gutxienez, 1.080 euroko pensioa lortu behar da. Zeren lotsagarriak diren pensioak daude, 500 eurokoak, eta, horrekin, ezin da bizi". Josek lanbide arteko gutxieneko soldatari ere erreparatu zion: "zerbait igo dute, baina Europatik esaten duten kopurura inolaz ere ez da iristen". Horregatik, "gutxiendako bizi duin bat aldarrikatzera etorri

naiz manifestaziora". Bizi duina zer den galdetuta, Josek esan zigunez, "mundu guztia gutxieneko batekin bizi ahal izateko baliabideak jarri behar dira. Eta beste batzuk hainbeste ez izateko; edozertan gastatzen dute, edonola xahutzen dute. Aberastasun guztia banatua egon dadila".

Ariadna, Iñigo eta Ane gazteak elkarrekin joan ziren manifestazioan. Aurreneko biak lanean daudela esan ziguten. Aurrenekoaren kasuan oporren ordezkapenak eta halakoak egiten ditu eta "horrek bizi proiektuak ga-

ratzeko aukerarik ez du ematen". Bigarrena behin behineko langilea da eta behin betiko bihurtzeko esperantza du, baina, lagunak bezala, zaila ikusten du gaur egun bizi proiektu bat aurrera eramateko aukera. Azkena ikasten eta lanean dabil, langunek esandakoa berretsi besterik ez du egin. Hirurek pensioen gaia ez dute gertu ikusten.

"Protesta egiteko etorri naiz manifestaziora. Erretiroen, soldaten eta kontu horien guztien-gatik". Anjel Mariaren hitzak dira. 50 urteren bueltan dabilen langile finkoa da eta enpresan lan baldintza onak dituela aitortu digu. "Premia handiagoa duten eta hemen egon beharko luketen batzuk baino zorionekoagoa naiz". Pensio duina izan den galdetuta, Anjel Mariaren esan zigunez, "urte asko gelditzen zaizkit. Ni baino arrazoi gehiago dituztenak manifestazioan egon beharko lukete". Bizi duina lortzeko lan erreforma bertan behera uztea eskatu zuen, eta gutxieneko eskubideak bermatzea.

Lan eskubideak

Gaztea eta langabetua da Aitor. "Lan gutxi dago, eta, gainera,

prekarioa da". Azaldu zigunez, lauzpabost lan izan ditu orain arte. "Azken lana oso prekarioa zen, eta horretara ez bueltatzeko" parte hartu zuen greba orokorreko mobilizazioetan. Lan baldintzak hobetu beharra aldarrikatu zuen. "Bizitza oso gaizki dago. Lan gutxi, gauzak garestiagoak dira eta mantendu behar gara". Bitartean lan bila eta bere burua trebatzen ari da Aitor, "lan gutxi dagoenez, hobetzeko baliatzen dut". Gurasoen etxean bizi da. "Nire etxea izan, eta hori... ametsa da. Emantzipatzea? Orain ezin da halakorik egin". Pentsioetan oraindik ez da pentsatzen hasi, "baina, noski hobetu behar direla, bestela, zer etorkizun dugu?"

Bi urte eskas darama lanpostu finko batean Cristina gazteak. "Lanak bizi duin baterako ematen dit. Baina lanak baldintza duin batzuk izan behar ditu. Nire kasuan denetarik pixka bat du. Hobetzeko gauza asko daude, dudarik ez. Gorago daudenak horretaz jabetu beharko lukete. Behekoak ere. Eta kalera atera beharko lukete. Ez protestatzea eta pasatzen uztea". Bizi proiektua garatzeko aukera du eta, horregatik, ez du kezarik. Pentsioez galdetuta, "oso gaztea naiz oraindik, eta urrun ikusten ditut. Haren alde borrokatzea merezi du. Gertu dutenak baldintza onetan eskuratu dezatela".


Berrogeita hamar urteren bueltan dabil Juantxo. Langile finkoa da eta "zorionez, lan duina dugu. Aurretik lanean egondakoek lortutako lan eskubideengatik mantentzen ditugu lan baldintza onak. Gu, bestela, haiek lortutako lan eskubideak galdu besterik ez ditugu egin. Lan duina dugu, baina gero eta lan eskubide gutxiagorekin. Bihar gure lanpostuetan sartuko diren lan baldintzak


"IZORRATUTA NAGO ETA ERRETIROA AURRERATU BEHARKO DUT. PENSIO DUINA? ZAILA IKUSTEN DUT!"



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com







Etxe pasiboetarako egokia
5.9000



Isolamendu nukleo indartsua



Beirak lehorrean jarrita



Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

gureak baino kaskarragoak izanen dira". Lan baldintza duinak defendatzeaz aparte, Juanxto manifestazioan zegoen "pentsioen funtsarekin duten jokoagatik, miseriako soldatengatik... guztiagatik". Pentsio duina izatea espero ote duen galdetuta, "ez dakit duina edo ez duina, baina pentsioa izatea. Baina darabilten jokoarekin, zeinek daki zer gertatuko den bihar".

Kezka pentsioekin

Isabel langilea da eta berrogeita hamar urteren bueltan dabil. Mugagabeko lan duina duela azaldu zigun. "Lan baldintzak guztiendako duinak izateko, beti borrokan gabilta". Soldatak bizi duinerako "justu antzean" ematen duela esan zigun. "Dugun lan motagatik, uste dugu ez garela 67 urteko erretiro adinera iritsiko. Dagoeneko, fisikoki eta psikologikoki oso izorratuta gaude. Zaila ikusten dugu pentsio duina izatea, erretiroa aurreratu behar dugulako".

Raul gazte langabea da. "Orain dela gutxira arte lanean egon naiz. Lantoki batean sei hilabete kontratuarekin egon nintzen, bestean hilabetez. Eta orain, lan bila". Bitartean, "langabezian ahal den moduan bizirauten nabil". Gurasoen etxean bizi da. Emantzipatzea "nekez" iritsiko dela uste du. "Gazteria gaur egun gauden moduan, gauzak dauden moduan", etorkizuneko pentsioak "gordin" ikusten ditu berak.

Laura gaztea da eta behin betiko kontratua du. "Hala ere, horrek ez du ezer bermatzen. Edozein momentutan kaleratu zaitzakete". Enpresako lan baldintzak hobetu daitezkeela gaineratu zigun. Laurak lana izanda ere, horrek bere bizi proiektua garatzeko aukerarik ez diola



ARBIZU- UTZITAKOA



ETXARRI ARANATZ- UTZITAKOA

ematen ziurtatu zigun. Gurasoen etxea uztea, emantzipatzea, ezinezkoa ikusten du etxebizitzaren prezioak ikusita. "Niretako pentsioa urrun dago, baina borrokatu diren eskubideak defendatu egin behar dira".

Pentsioduna da Antonio. Lan gogor batean ia bost hamarkadez lanean aritu zen. Ondorioz, pentsio duina jasotzen duela esan zigun. "Manifestazioan nago pentsioak gehiago igo ditzaten. Hori da egin behar dutena! Horrela ezin da. 700-800 euro kobratzen duen pertsona batek ez du hilabetea pasatzeko ere". Eta prezioek gora egiten dutela gogorarazi zigun, "hobera joan beharrean okerrera goaz". Aita da eta semeak laguntzen ari dela azaldu zigun, "hipoteka pagatzen eta guzti". Aitak kezka azaldu zigun langabezian zuen semeagatik. Kexu zen Antonio: "batzuk

Erantzunarekin pozik

ELA eta LAB sindikatuak ordezkariek greba deialdiak Sakanan eguerdira arte izandako erantzunarekin pozik zeuden. "Emaitza polita da: Sakanako industria handienek itxi dute, edo itxi ez badute, grebak nahikoa jarraipen ona izan du. Ikusi besterik ez dago zer bozketa izan diren enpresetan, irabazi den tokietan kontrako oso boto gutxi egon ziren. Aurreko grebetan baino emaitza txukunagoak ditugu. Lanuztea ikaragarria izan da". Gaineratu zuten, "gure aldarrikapenak kalean ez badaude, ez dira inon egonen".

Eguerdira arte mobilizazioak egin ziren ibarrean. Irurtzunen, San Martin eta Bi Ahizpe

kaleetan egindako giza katean 193 pertsona elkartu ziren. Lakuntzan pankartak egiten aritu ziren 50en bat pertsona. Arbizuko kontzentrazioan, berriz, 60 bat elkartu ziren. Herrian barna aldarrikapenak manifestazioan eraman zituzten Etxarrin 400 bat pertsonak. Bakaikun, berriz, kontzentrazioan 40 bat elkartu ziren. Altsasun deitutako manifestazioa mugitu ahala, gero eta jende gehiago bildu zuen eta mila bat pertsonak elkartzea lortu zuen. Ziordian, azkenik, dozena bat pertsonak kontzentrazioa egin zuten. Iruñeko manifestaziotik bueltan "barraskilo operazioa" egin zen, autoak mantso bueltatuz.

5.000-6.000 euro kobratzen ari dira eta 1.000 euro irabazteko bizia eman behar duzu lanean".

Behin betiko kontratua du Rakelek, berrogeita hamar urte inguru ditu. "Lanak bizi duina izateko ematen du. Beti hobetu dezakezu". Lan baldintzak ere hobetu daitezkeela uste du. Greba orokorreko hirugarren mezuzal galdetuta, esan zigunez, "nire lanarekin uste dut ez dudala pentsio duinik izanen. Nire soldata baxua da. Gure lan hitzarmena baxuena da, beraz, ez dakit nola iritsiko naizen erretiro garaira". Jakina, horrek kezka sortzen dio Rakeli. "Gainera, lan gogorra dut. Nekatuta bukatzen dut, eta urte batzuk barru ez dakit nola iritsiko naizen".

Errelebo-kontratua du Teresa, 50 urteak pasata dituen. "Zortekoa izan naiz eta ongi nago. Nire eta senarraren soldatak batzen ditut eta ongi nago, ez dut inolako arazorik. Manifestazioa etorri naiz alabei eta jendeari babesa emateagatik". Enpresan bera ordezkatuko duen langileak bere lan baldintza berak ditu, "nik utzi nuenean ongi zegoen". Hala ere, aitortu digu bere lantokian lana ez zela duina, "nahikoa jasan behar izan nuen. Lan baldintzak hobetzeko tartea bazegoen". Lan baldintzak okertzen doazela ere gaineratu zigun. Berehala pentsioduna bihurtuko da, baina bera ongi dagoela gatzigatu digu: "gutxiagatik libratu naiz eta pentsio duina izanen dut". Lanpostuan ordezkatu duen langileak pentsio duina ez duela izanen pentsatzen du. Alabak gogora ekarri genizkion: "haiek bizi duina, kontratu duina izan dezaten. Gauza bera hemen dagoen jende guztiarendako. Ez nago ados erretiro adina atzeratzearekin".

- 1 Zer da bizi duina?
- 2 Zer da lan duina?
- 3 Zer da pentsio duina?
- 4 Grebaren mezua jendearengana iritsi da?



GAIZKA UHARTE

"Jendeak grebaren arrazoiak ulertu ditu"

1 Bakoitzak bere bizitza modu autonomoan ateratzeko modu bat da; bakoitzak bere bizitza modu normal batean egiteko aukera da. Gaur egun, prekaritatearengatik kolektibo askok zailtasunak dituzte bizitza duin bat aurrera eramateko.

2 Lan duina bizitza duin bat eramateko baliabide bat izan behar da. Lan duin bat izateak suposatzen behar du zuk zure bizitza modu autonomoan eramatea; zure behar guztiak aurrera atera ahal izateko tresna bat.

3 Pentsioa prekaritatearekin, bizitzarekin eta lanarekin lotuta dagoen zerbait da. Urte asko lan egin ostean pertsona batek bere erretiroaren pentsioarekin bizitza duin bat ez izatea ezin da onartu. Prekaritatearen kontra eginez eta lana hobetuz, bizitza eta pentsioak ere hobetzen dira.

4 Nire ustez, bai. Gizartera iritsi zaiola uste dut. Mezu hau zabaltzen lehenak izan behar ginen, etor daitekeenaren aurrean. Eztabaida zentroan jartzea lortu dugula uste dut. Ez dakit Nafarroa mailan nola dagoena, baina Sakanan azken egunetan giroa asko berotu da. Jendeak arrazoiak ulertu ditu eta horren fruitu dira grebaren eguneko mobilizazioak: Altsasukoa goizekoa esanguratsua iruditzen zait eta Irurtzunen ere 190 pertsona inguruk giza-kate bat egin dute. Behintzat gure eskualdean ulertu dela uste dut.



GORKA VIERGE

"Hori da gure helburua: gizartea ahalduntzea"

1 Azken boladan gizartearen erdian merkatua, enpresa eta ekonomia jartzen dira. Horrek itsutu gaitu eta eraman gaitu gizarte batera non ez diogun garrantzirik ematen ongi bizitzeko eskubideari. Langileok ongi bizitzeko eskubidea daukagu, eta ez bakarrik lanera joateko betebeharrak hori.

2 Ez da batere erraza, baina argi daukagu zer ez den lan duina. Azkeneko lan erreformekin langileen eskubide asko murriztu dizkigute; berezkoak geneuzkan eskubideak bertan behera utzi dituzte. Horregatik lana ahalik eta duinagoa izateko eskubideak berreskuratu behar ditugu.

3 Pentsioen sistema kolokan jartzen ari dira. Era interesatu batean esaten digute pentsioen sistemak ez daukala etorkizunik eta guk baietz aldarrikatzen dugu, baldin eta neurri ekonomikoak eta politikoak hartzen badira. Guztiok pentsio duin bat izateko eskubidea daukagu. 1.080 eurotan kuantifikatu dugu.

4 Poliki-poliki. Egia da kostatzen zaigula toki guztietara iristea. Gizartea mobilizatu eta politizatua dago, baina oraindik lan handia daukagu. Poz handia ematen digu egun hauetan egin duguna: Mezua zabaltu dugu eta guk ere mezu berriak jaso ditugu. Horrek laguntzen digu gizarte bizi bat mantentzeko. Hori da gure helburua: gizartea politizatzea, gizartea ahalduntzea.



BAKAIKU - UTZITAKOA



OLATZAGUTIA



ALTSASU - UTZITAKOA



IRURTZUN - UTZITAKOA



ALTSASU



ARBIZU - UTZITAKOA

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Guaixeko lantaldeak erredakzioa asteazkenean itxi zuen. Atzokoan soilik grebaren berri emateko lan egin genuen.

Ongi etorri

Sakanako
Herri Eskoletara



AURREMATRIKULAZIO KANPAINA 2020-21

OTSAILAREN 3tik 7ra

Sortzen



KALITATEA

Ikasleriaren garapen integrala helburu izanik etenik gabeko hobekuntzan oinarritzen den kalitatezko hezkuntza eskaintzen dugu

ELKARBIZITZA

Gure eskoletako aniztasuna eta aberastasunetik abiatuz, elkarbizitza oinarrizko balore bezala lantzen dugu

EUSKARA

Ikasle euskaldun eleanitzak sortzeko lehenetsua dugu

PUBLIKOIA

Herriko eskola, denon eskola gara

PEDAGOGIA BERRITZAILEAK

Pedagogia berritzaileak erabiltzen ditugu ikasleria guztiaren beharrei erantzuteko

BERDINTASUNA

Eskubide eta aukera berdintasuna sustatzen dituen eskola gara

INKLUSIOA

Aniztasunari erantzunez, ikasle orok dituen behar desberdinetatik abiatuta, denontzako aukerak sortzen ditugu



IRURTZUNGO HERRI ESKOLA
atakondoa.educacion.navarra.es
cpirurtz@educacion.navarra.es | 948500228
GE: atakondosapyma@gmail.com



URDIAINGO HERRI ESKOLA
urdiaingoherrieskola.educacion.navarra.es/web
cpurdiai@educacion.navarra.es | 948468345
GE: geurdiaing@gmail.com



ALTSASUKO HERRI ESKOLA
zelandieskola.educacion.navarra.es/web
cpalsasu@educacion.navarra.es | 948564839
GE: zelandi.apyma@gmail.com



LAKUNTZAKO HERRI ESKOLA
lakuntzakoeskola.educacion.navarra.es/web1
lakuntzakoherrieskola@educacion.navarra.es
948576020
GE: lakuntzaapyma@gmail.com



ITURMENDIKO HERRI ESKOLA
iturmendikoip.wordpress.com
cpturme@educacion.navarra.es | 948563414
GE: iturmendikogurasoak@gmail.com



UHARTE-ARAKILGO HERRI ESKOLA
cpuharte@educacion.navarra.es | 948567100
GE: sanmiguelapyma@gmail.com



ETXARRIKO HERRI ESKOLA
etxarrikoeskola.educacion.navarra.es/web
cpetxarr@educacion.navarra.es | 948567003
GE: apymasandonato@gmail.com



OLAZTIKO HERRI ESKOLA
domingobadosipeus.wordpress.com
cpolazag@educacion.navarra.es | 948563307
GE: apymabados@yahoo.es



ARBIZUKO HERRI ESKOLA
arbizukoherrieskola.blogspot.com
cparbizu@educacion.navarra.es | 948460783
GE: arbizukoherrieskola@gmail.com



ETXARRI-ANATZ - UTZITAKOA



IRURUTZUN - UTZITAKOA



ZIORDIA - UTZITAKOA



ARBIZU - UTZITAKOA

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO AURREMATRIKULA 2020-2021 IKASTURTEA

Jaso dezala eskua
Publikoan ikasi nahi duenak!

Eskola Publikoa,
zure lehen aukera



Eskaerak otsailaren 3tik 7ra bitartean, lehen tokian eskatutako ikastetxean
Argibideak: 948 012 012 eta 012 | aurrematrikula.nafarroa.eus



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Epeltasun bila

Etxeko leihotik zelaiei begira, ihintza izotz bihurturik, paisaia zurruntasun estatikoan mantentzen da. Negu betean, kalean hatsa lurrin bilakatzen da. Izoztutako gainazal oro, ikutu hutsarekin heze bihurtzen da larruazal epelarekin kontaktuan. Ur putzuak karrask egiten dute oinetakoen zama sumatzean, azpian duten ura azalaraziz.

Izoztutako paisaiaren antzera, etxetik urrun dauden haiek, zurruntasun horretan mantentzen dute beren egoera. Negu luze eta amaigabea, izotza ur bilakatuko duen epeltasun nahikorik gabe. Putzu izoztuko azala kraskatuko duen pausu astunaren zama askatzailerik emango den esperantza gabe. Bere horretan, leihotik begira, paisaiaren zurruntasuna aldaezina eta urtu ezina dela sinesten dutenen zain.

Eguzkiak, bere kabuz, malda atzetik atera eta behe lainoa altxatuz, bere epeltasunaz hotza garaitzea lortuko denaren ustetan zain.

Sakabanaketa, izoztutako paisaia, bizi diren garai berriei bizkar emanez mantentzen den egoera da. Itzalpean, zurituta jarraitzen duen eguzki izpirik gabeko eremua. Pausuak mantsoegi ematen diren esparrua. Beldurrak eragindako tristura, oinaze amaigabea. Mendeku anker, senide eta lagun zigor. Zaurien orbaintzea luzatzen. Baina injustiziak agerian geratzen, izoztutako esparru hark zergatik horrela jarraitzen ote duen bere buruari galde egiten diotenak gero eta gehiago dira. Egoeraren zurruntasunaz jabeturik, arrazoiak kritikoki aztertzen dituzten pertsonak. Epeltasun bila, izotza ur bilakatzea nahi dutenak, eta ur tanta horiek itsaso.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Borroka eta elkartasuna

SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Deseroso sentitzen naiz, ostiral honetako GUAIXEN agertuko den nere idazkia idazterakoan. Gaurko egunkari gehienentzat, berri nagusia atzoko GREBA OROKORRA izango da eta nik, idazki hau prestatzerakoan, ezer ezin esan, ez dakit nola igaroko den, zer gertatuko den, zein izango den erantzuna: eskasa, ona, oso ona.

Hau da hau estutasuna! Nire nahia grebarako deia egitea zen baina, igarotakoan zertarako? Edo, greba nola joan den ikusita, azalpen edo gogoeta bat egitea; baina, greba ez bada egin, nola egingo dut gogoeta? Baieztatu dezakedan gauza bakarra, lan asko egin dugula aurretik; elkarlana izan da,

pentsiodunen borroka azaleratu ditu, gaur egun, gizarte arlo ezberdinak pairatzen ari diren egoera larriak eta ezin dugu bakoitza bere aldetik ibili.

Euskal Herriko pensiodunen mugimenduak bi urte egin ditu pensio duinen alde mobilizatzen eta orain, gure aldarrietatik harago joateko beharra ikusi da. Aurrerapauso hori emateko, duela sei urte herritarren eskubide sozialak biltzen dituen karta osatu zuten sindikatu eta eragile sozialekin elkartu eta mugimendu bien arteko konfluentzia eman da, Pensiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa.

Hiru arrazoi nagusi izan dira elkartu eta mobilizatzerako behartu gaituztenak: "Pentsioena denon afera da, oraingo pensiodunena nahiz etorkizunekoena; lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da; eta, azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira".

Gaur, grebari dagokionez, data eta irizpide ezberdinak jasoko dituzte hedabideek, sentimendu ezberdinak sortuko dira gure artean ere, norberaren irizpidearen arabera. Baina garaipen bat lortu dugu: denok, denon arazoak eta aldarrikapenak defendatzeko elkartu gara, lan asko egin da, bide bat ireki da eta sindikatu, eragile eta mugimendu sozial eta pensiodunek elkarrekin borrokatuko dugu GUZTIENTZAT LAN, PENSIO ETA BIZI DUINA DEFENDATZEKO.



OBJEKTIBOTIK



ETB2k min

Hizkuntza normalizazioa du helburu Euskal Telebista. Euskararena, jakina. Baina bere bigarren kateak, atzera ere, egin du: aurkezle euskalduna herri euskaldunera bidali du herritar euskaldunak gaztelaniaz elkarriketatzerako. Hain zaila ote da euskara ETB2n sartzea eta entzutea? Euskarazko esanak erdarazko azpidatziekin ematea konponbide erraza izateaz aparte, edukiak kate guztietarako erabilgarri egingen lituzke. Eta, horrela, hizkuntzaren normalizazioan are eta garrantzia handiagoa hartuko luke hedabideak.



©EUSKALTELEBISTA

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Miren Alonso

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK**Nafarroako Gobernua**
Gobierno de Navarra

Irintarrek mustuko dute inauteri egutegia

Mozorrotuak bihar eguerdian eta arratsaldean aterako dira Irañetako kaleetara

IRAÑETA

Inauteri ospakizunak mahaiaren bueltan hasten dira beti Irañetan. Bihar, 10:30ean, hamaiketako izanen da Txapel Azpi elkartearen. Platerean tripotzak izanen dituzte. Majo gosalduta eta gero, 12:30ean, ihote segizioa kideak kalera aterako dira. Goitik behera txuriz jantzita, eta bizkarraldean koloretako zintak airean dantzan dabiltzala eta gerriko gorria dutela. Burua estaltzeko koloretako zintak dituzten txanoak daramate. Segizioak herrian barnako kalejira egingen du eta ezkongai dauden emakumezkoen etxeetan ezipel adartxo egindako paxoak utziko dituzte.

Bi bazkari izanen dira, biak ere Txapel Azpi gastronomia elkartearen. Nor bere albizona mozorrotutako haurrendako bazkaria 14:00etan izanen da eta haiek mahaitik jaiki eta gero, 14:30ean, helduak eseriko dira. Majo bazkaldu ondoren, atzera ere, ihote segizioa kalera aterako da. Zantzarra lagun dutela, Atxun Zarkoa Irañetan barna eramanen dute. Hasi duten tokian, elkartearen bertan bukatuko dute kalejira, kalejirako protagonistari su emanez. Bakarren batzuk oraindik ihote ospakizuna afariarekin borobilduko du.



Joan den urteko ihotea. ARTXIBOA

Txatarrak ostegunean aterako dira estreinakoz

Zaldunihote eta astearteihote antolatzen diren ostegunean, 19:00etan, bilera udaletxean

ETXARRI ARANATZ

Astearteihote edo garizumarako hiru aste falta direnaren seinale da Etxarri Aranazko ihotearen hasiera, heldu den ostegunean abiatuko baitira ospakizunak. Aurreneko ostegunak (otsailak 6) Gizakunde izena du eta garai batean gizon helduak txatarrak jantzita ateratzen ziren. Haiek ziren puska biltzea egiten zutenak, gero afari-merenduak egin ahal izateko. Andrekunde izena du bigarren ostegunak (otsailak 13) eta emakumezkoak aritzen ziren eskean. Gaur egun egun horietan kintoak dira txatar jantziak soinean dituztela herrian barna ibiliko direnak. Gainera, hainbat etxetako emakumezkoak ere afaltzera elkartuko dira. Edo lagun-taldeak. Ez hain aspaldi emakumezkoendako herri-afaria antolatzen zen egun horrekin.

Hirugarren osteguna Garikunde da (otsailak 20) eta zigorrak eskutan dituztela ateratzen dira kintoak, parean opatzen dutena berotzeko. Haurren inauteria zena, Zaldunihote, joan den urtean igandetik larunbatera (otsailak 22) pasa zen eta herri-ihote bihurtu da. Astearteihoteak (otsailak 25), berriz, herri-ihote senari eusten dio eta lagun kuadrillak mozorrotzeko eta afaltzeko aitzakia dira.



Kintoen entseguak ikustera makina bat jende joan da.

Kinto ospakizunetarako atzerako kontua martxan da

Santa Agenda egunarekin, asteazken goizean, dirua eskatuko dute aurtengo 49 kintoek

ALTSASU

Burunda frontoia kintoen dantza entseguen lekuko izan da da ilbeltzaren 7tik. Txetxo Jimenez, Aitziber Etxaiz Soria eta Maixabel Lopez de Uralde Muñoz irakasle dituztela zortzikoa, jota eta porrusalda dantzatzeko ikasi dute. Eta sei egun barru euren trebezia plazan erakusten hasiko dira. Hala ere, Aintzane Bengoetxea Garisoain, Izaro Agirre Poveda, Julen Barreiro Nieto eta Eneko Galartza Pozueta buruzagi dituen kintada asteartean, Santa Ageda bezperan, mezara joanen da. Handik atera eta gero, txistularien laguntzaz herrian barnako aurreneko kalejira egingen dute.

Asteazkenean, goizean goiz, eskatzen hasiko dira. Azoka eguna denez, eta jende ugari etortzen denez, diru-bilketa handia izanen dela pentsatzekoa da. Egiteko horretan laguntza izanen dute: Peru Urteaga Leñena eta Itziar Anton Garzia izanen dira zahar toa eramateaz arduratuko diren haurrak. Goiz-eguerdian zehar eskatzen ibili ondoren, bazkaldu ondoren, 19:00ak aldera agertuko dira kintoak eta banan-banan zortzikoak dantzatzeko hasiko dira.

Aurtengo kintoek asteazkenean zortzitan dantzatzeko dute zortziko. Santa Ageda egunez urte borobilak betetzen dituzten kintadak ere elkartuko dira eta haietako bik ere dantzatzeko dute. Hurrengo egunetan plazan dozena bat zortziko dantzatzeko dituzte kintoek. Azken egunean, domekan, bederatzita izanen dira.

Goiz guztia eskatzen ibili eta gero, asteazkenean Mareon bazkalduko dute. Ostegunean Iru-bide jatetxean bazkalduko dute kintoek. Ostiralean, berriz, gaztetxean. Larunbatarekin herriko kintada guztiek bazkaria izanen dute eta azken urteetako ohiturari segituz, kintoek catering enpresa bat kontratatu eta Gure Etxea eraikinean bazkalduko dute. Atzeneko egunean, domekan, azkenik, Arkangoan bazkalduko dute.

Garai batean kinto ospakizunak irauten zuten bitartean jende gehiago ateratzen zen eta taberna guztiak zabalik egoten ziren. Orain bakarria da ordu txikiak arte kintoak, beti-kintoak eta parranderoak hartzen dituenak. Asteazkenean Koxka izanen da, ostegunean Lezea, ostiralean Arkangoa, larunbatean denak eta, kinto ospakizunak Idergin despidituko dituzte.

Kintoek herritarrak eskuabalak izatea nahi dute. Eurak gogoz entseatzeko ari dira astegun guztietan makina bat altsasurra begiradapean. Plazako zortzikoek aparte, kintoek larunbaterako elektrotzaranga bat ekartzeko asmoa dute, Gure Etxean joko lukeena.

Emakumezko kintoak baserri-tar jantzi ederrak jantzen dituzte. Gizonezkoek, berriz, praka eta atorra txuriak. Batzuek eta besteek kaikua jantzen dute, baita zapiak soinean eraman ere. "kintoendako pixka bat" eskatzerakoan azpila luzatuko dute. +www.guaixe.eus



Egunean Behin-eko Sakana taldea.

Egunean Behin aplikazioan Sakana taldea sortu dugu

Galdera-erantzunen euskarazko jokoak da, telefono aplikazioa deskargatuz jokatzeko da

SAKANA

Egunean Behin jokoak dinamika erraza du. Izenak dioten bezala, egunean behin partida bat jokatzeak aukera ematen du. Hamar galdera egiten ditu eta horiek ahalik eta azkarren erantzun behar dira. Beraz, erantzun zuzenak emateak eta horietan den azkartasunak dute balioa. Asmatutako erantzun kopuruaren eta pasatako denboraren arabera, jokalariek puntuak lortzen dituzte. Jakina, puntuen arabera, sailkapenenean gora edo behera egiten da. Astero berri-tuko da sailkapena, zapi egunetako partidak kontuan izanik.

Bakarka edo taldean jokatzeko prestatura dago aplikazioa. Guai-xe fundazioak erabaki du Sakana taldea sortzea. Euskarazko aisialdiko plaza horretan sakan-darrei elkarrekintzarako eta partekatzeak aukera eskaintzea da helburua. Sakandarrak elkarrekin euskaraz jolasteko aukera ematea da talde horren ideia, ibarreko herritar euskaldunen-dako topaleku bat. Ondoren aplikazioa harreman hori pantailatik kanpora eramatea, jokalarien gauza litzateke. Sakana taldean sartzeko 2B2160 giltza sartu behar da. Denboraldia bukatzean irabazleak Guaixe25 kit-a jasoko du. +guaixe.eus



Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Batzordeko kideek planaren oinarria egin dute. UTZITAKOIA

Berdintasun Planerako parte hartze prozesua

Otsailean sei saio egingen dira, "gogoeta eta eztabaida kolektiboaren bidez planaren irizpideak, lehentasunak, baldintzak eta programak definitzeko". Berdintasun plana apirilean onartu nahi dute

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuko teknikari Oihana Gallo San Romanek jakinarazi duenez, ibarreko erakundea Sakanako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2020-2025) egiten ari da. Bi helbururekin: batetik, Mankomunitateko zein Udaletako kudeaketan genero-ikuspegia txertatzea, eta, bestetik, Sakanako emakumeen aukera eta eskubide berdintasuna bermatzea. *Errotik, Sakana parekidea* leloa du ekimenak.

Gallok azaldu duenez, "gobernuak eta udalak adostuta, Nafarroan badago toki-entitateen Berdintasun Zerbitzuen halako ibilbide adostu bat". Hari segituz, plana lau arlotan egituratuko dela azaldu digu Gallok. Aurrena, administrazioa bera hartzen duen toki-gobernamendua eta genero zeharkakotasuna da. Hurrena, emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzak lortu nahi dituen. Horiekien

batera, planaren bidez bizitzaren jasagarritasuna sustatuko da, zaintzaren etika garatuz eta bateragarritasuna eta erantzunkidetasunez. Atzeneko arloak emakumezkoen ahalduzkoa bulkatuko du, parte hartze sozopolitiko eta balioen eraldaketa sustatuz. Arlo bakoitzak bere estrategia ildoak ere izanen ditu. Mank-ek 2020-2025 aldirako plan estrategikoa landu du. "Bertan jaso diren estrategia ildoak ere zeharka Berdintasun Planean landuko dira".

Parte hartzea

Plana egiteko "herritarrak eta bereziki emakumeak, elkarteak, arduradun politikoak eta interesa duen oro parte hartzera eta ekarpenak egitera gonbidatu" ditu Gallok. Sakandarren, erakunde eta kolektiboaren parte hartzearen bidez "planaren helburu eta ekintzak zehaztuko" direla argitu digu teknikariak.

Gallok azaldu digunez, "parte hartze saioetan gogoeta eta ez-

tabaida kolektiboaren bidez Berdintasun Planaren irizpideak, lehentasunak, baldintzak eta programak definituko dira". Sei parte-hartze saio egingen dira, bakoitza sektore jakin bati zuzenduta. Baina guztiek egitura bera izanen dute: berdintasun-gaien inguruko oinarritzko prestakuntza jaso, Berdintasunerako Planaren hezurdura aurkeztuko da eta talde-lanean ekarpenak jasotzeko. Udaletako eta Mank-eko langileei Nafarroako 2019ko Berdintasun Legearen berri ere emanen zaie. Saio horiek Idoia Lekuek, berdintasun aholkulariak, eta Gallok berak gidatuko dituzte, eta 3 orduko iraupena izanen dute.

**IZEN EMATEA:
BERDINTASUNA@
SAKANA-MANK.EUS
E-POSTA HELBIDEAN
ASTE BAT LEHENAGO**

Egitaraua

Otsailak 3, astelehena

17:00etatik 20:00etara
Alkateak eta zinegotziak*.

Otsailak 7, ostirala

10:00etatik 13:00etara
Udal teknikariak eta gizarte zerbitzuak.

Otsailak 10, astelehena

17:00etatik 20:00etara
Emakumezkoak,
mugimendu feminista eta emakume elkarteak*.

Otsailak 14, ostirala

10:00etatik 13:00etara
Sakanako
Mankomunitateko
langileak.

Otsailak 17, astelehena

17:00etatik 20:00etara
Herritarrak, elkarteak,
guraso elkarteak...*

Otsailak 21, ostirala

10:00etatik 13:00etara
Tokiko garapena.

* Saio horietan 3 urtetik gorako haurren zaintza zerbitzua izanen da, baina astebete lehenago eskatu beharko da.

Parte hartze saioak ez dira zerotik abiatuko. Gallo lastailean hasi zen Berdintasun Planaren diseinua lantzen. Mank-eko Berdintasun Batzordea sortu zen eta hiru hilabetez, ahalduz hiru saioen bidez, gaiaren inguruko prestakuntza jaso zuten batzordekideek. Horrela, planaren hezurdura edo egitura landu eta adostu da batzordekideekin. Eta abiapuntu hori izanen dute parte hartze saioetan.

Otsaileko aurreneko hiru astetan egingen dira parte hartze saioak. Behin horiek despedituta planaren zirriborro bat osatuko da, bi kontraste taldeetan aztertuko dena: Mank-eko Berdintasun Batzordea eta Berdintasun arduradun eta adituak. Hori martxoan egingen da. Hilabetea despeditu aurretik sakan-darrek www.sakana-mank.eus web orriaren bidez inkesta bete eta ekarpenak egiteko aukera izanen da eta jendaurreko bi aurkezpen saio egitea aurreikusi dute, martxoaren 8aren bueltan izanen direnak. Azken ekarpenekin osatu eta onartuko dute atzeneko dokumentua, apirilean aurkezteko aurreikusten dutena. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Udalak baso kudeaketaz azalpenak eman ditu

Ingurumen Departamentuaren Baso Antolakuntza Planaren arabera kudeatzen da

URDIAIN

Teilekozabal, Arbotonata, Aizpikomaizti eta Bustintza dermioetan baso aprobetxamendua ateratzen ari da enpresa bat. Makineria astuna erabiltzen ari da horretarako eta haren gurpilek arrasto handiak uzten ditu lurreen. Pasako tokia denez, jendearen artean zeresana eman du horrek, eta horren adierazte da joan den astean Guaixe aste-karian Objektibotik atalean argitaratuko argazkia eta hari lotutako testua.

Urdiaingo Udalak azaldu duenez, herriko baso kudeaketa Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Departamentuak onartutako Baso Plangintzaren arabera egiten da. Han jasotzen dira basoa eta bertako baliabideak berri eta iraunkortasuna bermatzeko egin beharreko jarduerak eta egutegia. Udaletik azaldu dutenez, "PEFC zigiluak kudeaketa jasagarria dela ziurtatzen du". Udaletik gogorarazi dutenez, "baso aprobetxamendua erosten duen enpresaren egitekoen artean "bideak eta hondatutako eremuak leheneratzea dago. Hori, aurretik ordaintzen duten fidantzarekin bermatzen da".

Herrieren etxetik gaztigatu dutenez, "zuhaitzak ateratzeko garaian makinek egiten dituzten mugimenduekin laharrek eta zaparrak apurtzen dituzte, horrela ezkurra lurreraino iristen da eta bertan errotzea lortzen da, basoa landare gaztez betetzen delarik". Udalak jakinarazi duenez, Teilekozabalgo baso aprobetxamendua atera ondoren gelditzen diren adarrak etxerako sutarako egur loteetan banatuko dira urdiaindarren artean. Ondoren, aprobetxamendua hartu duenak bideak konponduko ditu. Azkenik, udalak gogorarazi du baso plangintza herriaren etxean ikusgai dagoela, edonorendako kontsultagai.

Apusturik ez! topaketa antolatu dute

Herri Unibertsitateak antolatuta, *Apustu etxeak kanpora!* lelopean apustuaren inguruko arazoak landuko dituen topaketa antolatu dute Ziordiko Amarauna gunean biharko. Herrietan zabaldu diren apustu-etxeak, tabernetan eta jatetxeetan dauden apustu-makinak, on-line apustuak, ludopatiak, tratamenduak, adinak, zaintzak eta beste hainbat gai landuko dituzte biharko iragarritako topaketan. Prebentziotik salaketara bitarteko eremua aztertuko dute parte-hartzaileek. Topaketan gaiarekin interesa duten talde, elkarte, erakunde zein norbanakoek parte hartu dezakete, eta Herri Unibertsitatetik horretarako gonbidapena luzatu diete.

Amaraunako hitzorduko egitaraua 10:00etan abiatuko da Paula Jauregi, Igor Meltxor eta Jon Anton hizlari izanen dituen mahai-inguruarekin. 11:00etan, berriz, herrietako esperientzien berri emanen dituzte eta parte-hartzaileek haien kezka, galderak, ekarpenak egiteko aukera izanen da. Eguerdian ordu erdiko atsedena egiten dute eta 12:30ean taldeka ekintza proposamenak landuko dituzte. 13:30ean taldeka landutakoa komunean jartzeko garaia izanen da hitz(b)orobilean. Bazkariarekin despedituko da topaketa.



Jendea Amarauna gunean. ARTXIBOA

Nekazaritza ekoizle txikien topaketa Ziordian

Reclain teh Fields erakundearen Europako batzarra hartuko du Amaraunak heldu den asteartetik igandera. Ehun bat pertsona espero dituzte. Nekazari ekoizle txikiak eta landa eremuko ekoizleak biltzen dira Reclain de Fields erakundearen. Ziordiko Amarauna gunean urteroko batzarra egingen dute, zortzigarrena. Batzar horretan mugimenduko kide diren pertsonak elkartzeko dira eta hainbat aztergai izanen dituzte, esaterako: joan den urteko tokiko proiektuen eta borroken berri elkarri eman; Europako eta munduko garrantzizko gaien inguruko eztabaidak edota erakundearen martxari buruzko planak aztertu. Bost egunetan hainbat tailer izanen dira.



Erakusketako irudi bat. UTZITAKOIA

Kataluniako "proces"-a Iortian kondentsatuta

Altsasuko kultur guneak "La revolta de las urnes" erakusketa hartuko du otsailaren 5etik 16ra

ALTSASU

Dolors Gibert argazkilariak eta Carles B. Gorbs kazetariak Kataluniako "proces"-ari buruzko argazkiak eta idatziz osatutako dokumentala sortu dute, eta erakusketa itxura eman diote. Iortia kultur guneko erakusketa aretotik pasatzen direnek Kataluniako prozesu subiranistaren jarraipena egiten duen erreportaje batekin egingen du topo. Arenys de Munt herrian 2009ko irailaren 13an egindako aurreneko herri-galdeketaekin hasten da erakusketa eta gaur egunera artekoak kontatzen ditu.

"Proces"-aren jarraipen horretan bisitariak jendetza bildu zuten manifestazioen irudiak, politikoei egindako epaiketak, greba orokorrak, hauteskunde kanpainak, hauteskundeak, erreferendumak, hitzaldiak, gose grebak, langile, nekazari, suhiltzaile, jubilatuta eta abarren "leherketa", kartelak, pankartak, pintaketak, "askatasun" ikur diren xingola horiak, hautetsontziak edota lastailaren 1ekoa.

Asteazkenean, 18:30ean, musutze ekitaldia egingen da eta antolatzaileen ordezkariak hitza hartuko dute: ANC-Euskal Herria, ICEC, Gure Esku Dago eta Altsasuko Aske. ERCKo eta EH Bildukoak kideak ere izanen dira.



Ospa!-ren prentsaurrekoa jendetsua izan zen.

Ospa! mugimendua ikertzeari uzteko eskatu dute

Nafarroako Lurralde Auzitegia 2019ko Ospa Egunean "gorroto deliturik" dagoen ikertzen ari da

ALTSASU

Hala eskatu bazioten ere, Espainiako Auzitegi Nazionalak ez zuen joan den urteko Ospa Eguna debekatu, baina hura zaintzeko eskatu zuen. Dignidad y Justicia erakundeak "terrorismoa goratu" eta biktimak "umillatu" izana egotziz salaketa aurkeztu zuen, baina aipatu auzitegiak ez zuen onartu. Hori bai, Nafarroako Lurralde Auzitegiari eskatu zion "gorroto delitua" ote zegoen ikertzeko. Ospa! herri mugimenduak gaztigatu duenez, "azken eraso hori ez da gure kontrakoa soilik, guztion eskubide zibil eta politikoen kontrako eraso batzik".

Ospa Eguna zazpitan antolatu dute Altsasun. 2012an antolatu zuten estreinakoz eta 2017ko etnaren ondoren, segida izan du. Joan den urtekoan "Altsasuko historia memoria herriko kaleetara kaleetara" atera zuten, "gure aurreko belaunaldiak sufritutako errepresioa belaunaldi berriei ezagutarazteko". 14 geldialdi izan zituen kalejira batean, beste horrenbeste gertaeren berri eman zituen Ospa!-k. "Horregatik salatu eta ikertzen ari gaituzte".

Mugimenduak Altsasun babesa duela adierazteko prentsaurrekoa eman zuen larunbatean. Jakinarazi zuten, Ospa!-ren jarduerarekin ados egon edo ez, mugimenduak erabateko zilegitasuna duela diote Altsasuko 26 kolektibok. Horiek mugimenduen kontrako jazarpena arbuia eta bere kideei babesa azaldu zieten. Horrekin batera,

auzitegian zabalik dagoen ikerketa "bertan behera" uztea eskatu zuten.

Agiria sinatu dute: Egubera kirol elkarte, Altsasu Memoria, 2020ko kintoak, Ikasle Abertzaleak, Gazte Asanblada, Presoen aldeko taldeak, Askapena, Altsasuko Aske herri plataforma, AEK-ko irakasleak, Pentsiodunen koordinakundea, Altsasuko LAB, Txuixoo elkarte, Altsasuko mugimendu feminista, EHE, herri bazkaria, Isunen kontrako taldea, Guaixeko langileak, Garraxi Irratia, peñak, gaitariak, kuadrillen elektrotzaranga, Sakana Trenaren Alde AHTrik ez!, Kantuz abesbatza, Pilotajaukuko junta eta Aurrio treparari taldea.

Urteko asmoak

Errepresioaren kontrako astearen baitan egindako batzarrean Ospa!-k aurtengo bere plangintza onartu zuen. Horien artean daude, besteak beste, kontrolen zenbaketaekin segitzea, torturaren kontrako eguneko lanketa, lastailaren 12aren bueltan egingen dutena, indar armatuen eguna, isunen inguruko lanketa, historia memoria lantzen segitzea edota emakumea eta errepresioa gaia lantzea. Ospa eguna ere antolatuko dute. Joan den urtean historia memoria zentratutako eguna izan bazen, "jatorria bueltatu" eta "komedia edo parodia" kutsua izanen duela aurreratu dute. Datoren berri aurrerapenez emanen dutela eta "nahikoa egun potentea" izanen dela esan dute.

DUELA 25 URTE...



Ziordiko eskoletan lanean

Eskola zaharretan erabili gabeko geletan gimnasioa egiteko lanak 1994ko abendu hasieran hasi ziren eta otsailaren akaberarako despeditzea aurreikusten zuten. Bi solairu zituen gimnasioak. Goikoan, 60-65 m²-koa, paralelak, koltxonetak, ariketak egiteko tresnak eta beste jartzea aurreikusten zuten. Beheko solairuan, berriz, bi sauna txiki egitea aurreikusitua zen.

Olatzagutiko kintoak asteazkenean hasiko dituzte ospakizunak

Aurtengo kintada 14 gazte osatuta dago: Aitzol Mentxaka, Eider Gabirondo, Ander Orabengoa, Marta Granado, Josune Imaz, Adrian San Roman, Iker Ingelmo, Ainhoa Kintana, Andrea Imaz, Genma Murillo, Irati Rengel, Cristina Albiztur, Marta Da Silva eta Lidia Marin. Kinto ospakizunak asteazkenean hasi eta domekara arte iraunen dute.

Kinto segizioa asteazkenean goizean goiz aterako da herriko kaleetara. Itxabela txaranga lagun dutela herrian barna kalejiran ibiliko dira, baita diru-eskean ere. Eginkizun hori lantegietaraino eramanen dute. "Kintoendako pixka bat" eskaera hurrengo egunetan ere errepikatuko dute, haien parrandako bazkari-afariak, txaranga eta beste pagatzeko beharrezkoa baitute sosa. Ohi bezala, larunbatarekin, otsailaren 8an, herriko kintada guztiak bat eginen dute aurtengo kintoekin eta Olatzagutiak ospakizun handia hartuko du

Joko-aretoen lizentzien tramitazioa etenda

Eskaerak izanez gero horiek urte batez etengo ditu, ez da lizentziarik onartuko eta bitartean establezimendu horien inguruko araudia aldatuko du Altsasuko Plan Orokorrean moldaketa eginda

ALTSASU

Altsasuko Udalak apustu establezimenduetarako, joko-aretoetarako eta bingoetarako obretarako eta irekitzeko lizentzien tramitazioa etetea onartu zuen herenegun. Ludopatiaren gaineko kezkak eta araua berri beharra daude erabakiaren atzean. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu digunez, "Nafarroako udal ugari joko aretoen inguruko araudiak onartzen ari dira eta Nafarroako Parlamentuan joko arautzen duen Foru Legea aldatzeko batzorde bat lanean ari da. Azkenean, errealitateak orain arte izan dugun araudia moldatzera behartzen gaitu".



Joko-aretoa 2018an zabaldu zen.

Ollok esan digunez, "momentuz ez da beste joko areto, apustu etxe edo bingo bat irekitzeko eskaerarik egin, baina badaezpada indarrean dugun Altsasuko Plan Orokorrean aldaketak egin nahi ditugu, batez ere horien kokapena arautzeko". Ollok azaldu digunez, "izaera murriztailea duten araudiak ez dutenez atzera eraginik, plana egin bitartean halakoak arautuko dituen ordenantza onartuko dugu". Altsasuko Udalak urte batean ez du lizentzia berririk onartuko".

Udaltzaingoa

Altsasuko Udala Udaltzaingoaren Antolakuntza eta Funtzionamen-

du Araudia lantzean ari da. Horretan udal zerbitzu horren hainbat aspektu hartuko dira kontuan, baita su-armak erabiltzeko aukera ere. Alkateak argitu digunez, "momentuz, udaltzainek ez dute su-armarik, behin betiko erabakia araudia onartzean hartuko da". Udal oposizioan den EH Bilduk ohar bidez gaztigatu duenez, "ilbeltzaren 2an udalak udaltzainek su-armak eramateko eskaera onartu zuen". Koalizioak aukera hori "gaitzetsi" du, "ez delako beharrezkoa, ez delako laguntzen Udaltzaingoa hurbilekoa izan dadin eta gure herriaren bizitza sozialean integratua egon dadin; kontrakoa, herritarrek errezeloz hautematea eragingo du". EH Bilduko kideek uste dute "udaltzainei esleitutako funtzioak betetzeko ez dela beharrezkoa su-armak erabiltzen". Nafarroako Polizia Legean agenteen autobabeserako hainbat elementu jasotzen dituela nabarmendu du koalizioak, "hainbat motatako borrak edo autodefentsarako espriak, esaterako, eta ez dira hilgarriak". Ospa!-k ere udaltzainak su-armak eramatearen kontra egin du.

IKASTOLA

ETORKIZUNERANTZ HEZKUNTZA ERALDATZEN



IÑIGO ARITZA IKASTOLA

ikastola@inigoarizta.eus
San Pedroko bidea, 16. Altsasu
948 562951





ANDRA MARI IKASTOLA

etxarri@ikastola.eus
Utzubartxiki, 3. Etxarri Aranatz
948 46 02 86





TXIOKA HAUR IKASTOLA

txioka.haur.ikastola@inigoarizta.eus
Santokristobarren, z/g. Altsasu
948 37 30 23



ikastolenelkartea

Sakanako herri eskolak...Publikoak, Euskaldunak, Kalitatezkoak...



Bederatzi herri eskola edo eskola publikok osatzen dugu Sakanako herri eskolen sarea. Herriz herri bizi-bizirik gaude. Euskaratik eta euskaraz lan egiten dugu. Bertakotik eta bertakoentzat, datozen guztiei lekua eginez, inor baztertu gabe. Gure herrien eta kaleen ispilua gara. Ikasleek kalean bizi duten errealitatea bizi dute eskolan.

Irurtzango HE: Diziiplina positiboa, ikasketa kooperatiboa, Montessori gela, psikomotrizitate proiektua, digitalizazio proiektua, ikastetxe berean hiru etapak ditugu (DBHko 2. maila arte), bere burua berri-tzeari ekin dion ikastetxea gara. Elkarbizitza dugu oinarri.

Altsasuko HE: Metodologia aktiboen bitartez lan egiten dugu. IKKI (lan kooperatiboa) eta SKOLAE berdintasunerako programak lantzen ditugu, proiektuak egin eta guneak eraiki ditugu Haur Hezkuntzan. Dugun aniztasun handia gure indarguneetako bat da. Gure kudeaketak etengabeko hobekuntza ziurtatzen digu; honekin, besteak beste, prestakuntza akademiko ona bermatuz. Euskeraren erabilera sustatzea erronka dugularik, horren alde egiten dugu lan.

Arbizuko HE: Eskola berriak gure Dumas proiektua egi bihurtu du, Reggio Emilia, Martinet, Montessori.... ilusioz beteta hasi dugu erakuntza berriak ematen dizkigun aukeren etapa berria. Ikasleek beraien interesetatik abiatuta ikasten dute gurean.

Etzarriko HE: Kalitatea eta emaitza gorenak bilatzen diren ikastetxea da gurea. Metodologi aktiboak eta berritzaileekin konprometua: IKKI, Psikologia positiboa, golden 5, giroka eta proiektuak lan eginez, Montessori materialak, Teknologia berrien gaitasunak garatzeko plana (pentsamendu konputazionala, robotika, programazioa...), Hizkuntza proiektu eleanitza, etwiinin programa. Eskola komunitatea, guraso eta irakasleen elkar lana eta giro ona sustatzen duena.

Olaztiko HE: 2-12 urte bitarteko haurren kabia gara. Pedagogi aktiboak eta ikas-komunitateetako ekintza arrakastatsuek (talde elkarreragileak eta literatur tertuliak) erabat sistematizatuta daude gure eskolan. Aurten, eskola promotore bat izatea lortu dugu, ikas komunitateko eragile eraldatzailea.

Sakanako Ikastolak, etorkizunaren berme



Urteroko legez, aurten ere iritsi zaigu geure seme-alabak zein ikastetxetan matrikulatuko ditugun erabakitzeke unea. Oso erabaki garrantzitsua izanik, Etzarriko Andra Mari Ikastolatik eta Altsasuko Iñigo Aritzako Ikastolatik, erabakirik onena hartzen lagundu nahi zaituztegu.

Ikastolaren izaera

Euskara eta euskal kultura sustatzeko helburuarekin sortutako guraso kooperatibak gara; Herritik sortuak eta herriarentzat lan egiteko bokazioa dutenak.

Gainera, testu-liburu eta material propio eta berritzaileak sortu eta erabiltzen dituen sarea gara: Euskal Herrian eta Euskal Herrirako berariaz eginiko material propioa sortzen dugu.

Eta hau guztia, Sakanako Ikastolak irakaskuntzan daramatzagun 50 urteko ibilbide luzeak ematen duen esperientzia eta kalitatearen bermearekin.

Haurra ulertzeko modua

Garrantzitsua iruditzen zaigu, haurra, txiki-txikitatik, hainbat gaitasun dituen pertsona dela ulertzea; ohartzea eta onartzea, haur bakoitzak

10 Arrazoi Korazonistetan ikasteko

1.- Zerbitzu desberdinen eskaintza:

- Zaintza zerbitzua: Ikastetxea 08:00etatik 09:00etara irekita egongo da.
- Jardunaldi etengabea: 08:55etatik 14:05etara.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: asteleheneetik ostegunera:15:30etatik 17:00ak arte
 - Abesbatza
 - Informatika
 - Euskarazko eta ingelesezko tailerrak
 - Errobotika
 - Ekokoras...

• Jantoki zerbitzua: Geure aholkularitza dietetikoak elaborazioa

• Berdegune handiak, frontoia, kiroldegia, jokugela, futbol eta saskibalo zelaia, haur-parkea, baratzea...

2.- Hizkuntza aniztasuna: Hizkuntzen irakaskuntza aktiboa sustatzen dugu eguneroko errutinetan, jolasetan eta eskolako ekintzetan oinarrituta. B ereduak: Ikasgai gehienak EUSKARAZ, Ingelesko ikasgaiak eta matematika izan ezik. A eredu berezia, euskara susta-

tuz, DBHn emaitza baikorrak lortuz, hau da, ikasketak bukatutakoan Hizkuntza Eskolako (B2 Euskaraz eta B1 Ingeleraz) ziurtagiriarekin.

3.- Inklusioa: Pertsona bakoitza den bezala onartzen dugu, eta denon artean talde bakarra eta anitza osatzeko bidea eraikitzen dugu. Onarpena eta integrazioa landuz gure oinarri bezala.

4.- Pertsonak hezten: B + E + A = ON: Gure ikasleak zoriontsu dira Berdintasuna, Errespetua eta Apaltasuna lantzen ditugulako ONGI-ZATERA bideratuz.

5.- Konfiantzaren pedagogia: Konfiantzaren pedagogian oinarritzen dugu gure irakasle-ekintza, eta ikaslea seguru eta zoriontsu sentituko den giroa sortzen saiatzen gara.

Ikasle bakoitzaren lorpenak balioztatzen ditugu, aurrera egin dezan animatuz.

6.- Hezkuntza pertsonalizatua: Hezkuntza pertsonalizatua eraiki ohi dugu egunez egun, haur bakoitzera egokitua, haren interesgutan eta gaitasunetan errota, norberaren ikasteko era berezian eta haurrak munduan bere urratsa uzteko duen eskubidean oinarrituta.



kurmendiko HE: Bakarrik azkarrago baina elkarrekin urrunago si gaitzkeela sinesten dugu. Horregatik, Olazti eta Urdiain beza-kas komunitatea gara. Baratzea eta eskolako patioa eraiki ditugu komunitatean. Familiekin tertuliak eta bizikidetzak batzorde mistoa ukagu baita Herri Batzordea ere.

urdiango HE: Ikas Komunitateen ekintza arrakastatsuek martxan dugu, literatur tertuliak, talde elkarreragileak... Sakanapedia proiektuak eta Ikasketa Zerbitzu solidarioan ere ari gara. Montessoriren pedagogian oinarrituta egiten dugu lan.

harteko HE: Hezigarri-Proeducar proiektuan murgildutako eskola gara. Inklusioa da ardatza. Ikasleen biltzarrak sortu ditugu eskolako hainbat erabakietan beraien parte hartzea bermatzeko. Giroak, matematika modu manipulatioan lantzeko gela, tertulia dialogikoak...

akuntzako HE: Haur Hezkuntzan giroen metodologia, "Sentitu, ulertu eta eratu" berrikuntza proiektua. Metodologia aktiboak, manipulatioak, Montessoriren pedagogia eta Sakanarekin lotutako hainbat proiektu...



bere singularitasuna duela; barneratzea haurra bera dela bere garapeneren protagonista, eta ulertzea garapen-testuinguru aberatsa eta segurua eskainiz gero, haurrak berak osasuntsuki garatzeko gaitasuna daukela: bakoitza bere erritmoan, eta bere esperimintatzeko grinetik. Esparru erosoak eskainiko dizkiogu, bere garapena sustatu, bultzatu eta indartzen laguntzeko.

Pertsona eredu

Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletan argi daukagu zein den nahi dugun ikasle eredu: Pertsona euskaldun konprometitu eta eleanitzak nahi ditugu; euren buruarekiko konfiantza daukatena; lankidetzan trebatuak eta erabaki-hartzaile kritikoak izango direnak; sortzaileak eta ekintzaile gogoetatsuak; eta gainera, munduarekiko eta euren inguruarekiko jokabide etikoak izango dituztenak.

Ikaslearen bidelagun gara


Ikastolotako Irakasleak garaiekin aldatzen joan gara. Aldaketa sozial eta pertsonalekin batera, gu ere aldatzen joan gara. Etengabeko formazioak eta urteetako esperientziak umeekin batera eraldatzera

eramaten gaitu. Ez dugu gure garapena eten nahi. Haurren bidelagun izan nahi dugu.

Horregatik, gure Ikastoletan, konfiantzako espazio ziurrak prestatu ditugu, umeak bere behar eta interesak garatu eta asetzeko gain, bere gaitasunak sustatu eta bertan zoriontsu senti dadin.

Ikastolak sortu zirenetik gaur egun arte, haurrekiko ikuspegia zeharo eraldatzen joan da. Ikerketek eta esperientzia propioek haurra gero eta gehiago ezagutzera eraman gaituzte. Neurozientziaren ikuspegi berritzaileek, haurrak gaitasun, ezagutza eta esperientzia propioak dituzten pertsona moduan aldarrikatzera eramaten gaituzte.

Ez izan zalantzarik, eta matrikulatu zure seme-alabak Ikastolan. Euskal Herrian eta Euskal Herrirako sortutako hezkuntza eredu bakarra gara, baita Sakanan 0-16 urte bitarteko hezkuntza proiektu jarraia eta koherentea eskaintzen dugun bakarrak ere. Haur Hezkuntzatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bitartean haurren jarraipen estua eta pertsonalizatua bermatzen dugu. Zure umearentzat aukerarik onena. Eta 50 urtetako esperientziaren bermearekin.



7.- Metodologia aktiboak: Haur bakoitzaren behar berezietan erantzuten diegu ikas-metodologia ezberdinen bidez, haurren arteko lankidetzak eta ikas-prozesuan haurren beraren parte-hartze aktiboak sustatzen dituztenak lehenesten ditugu.

8.- Irakurketa, idazketa eta hizlaritza planik hoberena: Ezinbestekotzat jotzen ditugu irakurketa, idazketa eta hizlaritza ikasketak indartzeko eta bizitzako komunikazio-gaitasunak hobetzeko. Berezko irakurketa plana daukagu Haur Hezkuntzatik DBHra arte. Irakurketaz gozatzeko gela berezi bat daukagu.

9.- E-learning: Gure ikasleak gaur egunera egokitutako teknologietan hezten ditugu erabilera egokia ZEHAZTUZ, etengabe BERRITUZ. 2020an martxan dugu Robotika Kreatiboa.

10.- "Jolasten naiz, beraz, banaiz": Psikomotrizitate-plan zaindua daukagu, haurrak jolaren bitartez hainbat aspektu gara ditzan: gorpuzaren kontrola, adimenaren antolaketa, sormena eta imajinazioa. Norberaren nahiz ondokoaren emozioak era egokian antzemateko eta adierazteko gai izan dadin saiatzen gara.

ETOR ZAITEZ EZAGUTZERA!!



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 31

ALTSASU Gazte agenda. Pintxo
lehiaketa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ARBIZU Ez da oro maitatzea
norbere maitatzeko aitzakia?
Juanjo Olasagarreren puskak.
19:00etan, Arbizuko herriaren
etxeko batzar gelan.

ALTSASU Ipuinen unea: Lur
Kortaren Ipuinez blai.
19:00etan, lortia kultur gunean.

SAKANA Hileko azken ostiraleko
Euskal presoak Euskal Herrira
kontzentrazioak Irurtzun, Uhartre
Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri
Aranatz, Bakaiku eta Olazti.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske.
20:00etan, udaletxe parean.

ITURMENDI Bardoak 2020.
Dimtrin eta Sakaña taldeak.
21:30ean, gaztetxean.

ALTSASU Puñales por la espalda
gaurkotasunezko filma.

22:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI Moonshine Wagon
taldearen kontzertua.
23:30ean, Barandi tabernan.

ITURMENDI Gaztetxearen
urteurrena. Atzapar Rock
taldearen kontzertua.
00:00etan, gaztetxean.

LARUNBATA 1

ALTSASU Euskal Herriko XII.
Mus txapelketaren kanporaketa.
16:00etan, Kukuerreka elkartearen.

ZIORDIA Amarauna proiektua
ezagutzeko ate irekien jardunaldia.
17:30ean, Amaraunan.

ALTSASU Oreka TX taldearen
Koklea kontzertuaren emanaldia.
19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 2

ALTSASU Quackers. La leyenda
de los patos familiarteko filma.
17:30ean, lortia kultur gunean.

IRURTZUN A la deriva Medicos del
mundo GKE-ren antzezlanaren egina
du Tarima Beltza antzerki taldeak.
Sakanako Mankomunitatearen
Anitzartean zerbitzuak antolatuta.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Puñales por la espalda
gaurkotasunezko filma.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU 9 meses de... condena
zineforum filmaren emanaldia.
19:40etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal
Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 3

ALTSASU Pentsio duinen alde.
Sakanako Pentsiodunen eta
Adinduen Koordinakundea.
12:00etan, plazan.

LAKUNTZA Errotik Sakana
parekidea. Sakanako emakume eta
gizonen arteko berdintasunerako
I. plana eratzeko parte hartze
saioak: alkateak eta zinegotziak.
Izena ematea: berdintasuna@
sakanako-mankomunitate.eus.
17:00etatik 20:00etara, Sakanako
Mankomunitateko egoitzan.

ASTEAZKENA 5

ALTSASU La revolta de las urnes
erakusketaren mustutzea.
18:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 6

ETXARRI ARANATZ
Errepresaliatu gaixoa kalera,
amnistia osoa. AEM.
19:30etan, plazan.

ALTSASU El silencio del pantano.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ZORION AGURRAK



Joseba Juanicorena Serrano
Zorionak Joseba, 4
urte!! Ono pasa
maitia, asko maita
zaitugu!! Etxekoak



ALTSASU Uholdeak, mahaira
arte garaikidea Nafarroan
zabaltzeko erakusketa
ibiltaria. Uhartre zentroa eta
CAN fundazioa.
Urtarrilaren 10etik
otsailaren 2ra. Astelehenetik
ostiralera 18:30etik 21:00etara,
larunbatean emanaldia baino
ordu bat lehenago eta
igandetan 19:00etatik
21:00etara, lortia kultur guneko
erakusketa gelan.


ALTSASU La revolta de
las urnes Dolores Gibert
argazkilaria eta Carles
B. Gordis kazetariaren
erakusketa.
Otsailaren 5etik 16ra.
Astelehenetik ostiralera
18:30etik 21:00etara,
larunbatean emanaldia
baino ordu bat lehenago
eta igandetan 19:00etatik
21:00etara, lortia kultur
guneko erakusketa gelan.

**2020ko
ihoteetako
lehiaketa**

Otsailaren 5etik
martxoaren 4ra

**Sariak: Errigora kaxak
eta Guaixe25 kit-a**

www.guaixe.eus



**DEKOVEN
NAVARRA**
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - **ALTSASU**
Tel./Faxo: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

LEHIAKETA

12. elkar ilustrazio eta lpuin lehiaketa marxan da: 4 urteik 16 urtera bitarteko haur eta gazteek parte hartu dezakete. Sari ederrez gain, ikastetxei zuzendutako opari bereziak izango dira. Lanak aurkezteko epea apirilaren 17a arte izango da. Informazio gehiago www.elkar.eus-en, lehiaketa@elkar.eus helbidera idatzita edo 943 310 301 tfnora deituta.

OHARRAK

Santa Agedarako dantzak praktikatu nahi dituzu? Altsasuko Intxos-tiapuntan jota, zortzikoa eta abar entseatzeko gelak daude.

Odol-emateak Irurtzuenen: otsailaren 12an, 16:45tatik 20:30tara, www.adona.es/eu.

Bakaikutik Ezkabara: Bakaikuko kultura batzordea Ezkaba mendiko Alfontso XIII.a gotorlekura bisita gidatua prestatzen ari da. 1936ko estatu

kolpearen ondoren kartzela gisa ibili zuten kolpistek. Maiatzaren bigarren erdialdean izanen da bisita gidatua. Hura behar bezala prestatzeko aurretik izena eman behar da udaletxean, edo ohiko tokietan. Ilbeltzaren 31ra arte dago epea.

Sei elkarterako boluntarioak: Sei elkarterak bakarrik dauden adingabe atzeritarrekin astean bi ordu egoteko 21 urteik gorako boluntarioak behar ditu: asteartetan Iturmendin eta ostegunetan Altsasuko gazte gunean, 17:00etatik 19:00etara. Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake, edo gestion@asociacionsei.org e-postara idatzi dezake. www.asociacionsei.org, informazio guztia dago.

Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntzetxearen eraikina zaharberritzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korron-

tean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote.

Sakana Trenaren alde AHTrik Ez plataformakoak asteartero, 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan txandakatuz egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profiilean.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonoan edo AE-Kren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia guztia.

www.iragarkilaburak.eus

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:
24,20 euro
948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
• GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.


ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.


- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 31




Larunbata, 1



Igandea, 2



Astelehena, 3



OROIGARRIA



JAIOTZAK

- **Safwa Mahboub**, ilbeltzaren 18an Altsasun
- **Enai Zelaia Zelaia**, ilbeltzaren 19an Altsasun
- **Modoubamba Sene Sow**, ilbeltzaren 19an Altsasun
- **Amira Missaoui Nouri**, ilbeltzaren 22an Irurtzunen
- **Bayron Juan Salvador Ramos**, ilbeltzaren 23an Olaztin

EZKONTZAK

- **Aitziber Zeberio Aristorena eta Andoni Igoa Nazabal**, ilbeltzaren 11n Etxarri Aranatzin

HERIOTZAK

- **Juana Sagarduy Basaldua**, ilbeltzaren 22an Lizarragan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

OROIGARRIA



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskolak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUL, A TU LAGO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📍 @Grupolrache

📺 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Binakako txapelketa puri-purian

PILOTA Oraindik ia guztia dago erabakitzeke eta lehia oso erabakigarriak dituzte gure pilotariak. Ezkurdiak eta Martijak Victor eta Mariezkurrena izango dituzte aurkari gaur Zallan, eta bihar Jaka eta Zabaleta Lasoren eta Albisuren kontra arituko dira Idiazabalen

Binakako Txapelketako finalerdietarako zein bikote sailkatuko diren, asko dago oraindik jokoan. Hasierako ligaxkako lehen bi bikoak zuzenean sailkatuko dira. Eta gainontzeko bi postuak erabakitzeke aurten, nobedade moduan, play-offa jokatu da 3. postua eta 6. postua bitartean sailkatuta dauden taldeen artean.

Jaka eta Zabaleta liderrek 8 puntu dituzte eta finalerdietan egongo direla aurreikusten da. Bigarren postua lortzeko borroka, aldiz, itzela da. 4 bikote daude 6 puntura berdinduta, tartean Ezkurdiak eta Martija, eta haiekin batera Artola-Imaz, Altuna-Ladis Galarza eta Laso-Albisu. Hortaz, ligaxka bukatzeko gertzen diren 3 jardunaldiak hil ala bizikoak izanen dira.

Presioa Ezkurdiak-Martijarena

Gaur, ostirala, Ezkurdiak eta Martija Victor eta Mariezkurrenaren kontra ariko dira (20:00, ETB1). Baiko pilota enpresak erabaki du atzera ere Victorrek ordezkatuko duela Bengoetxea, "kirol irizpideak" argudiatuta. Ezkurdiak eta Martija dira faborito, Bengoetxeak eta Mariezkurrenak puntu bakarra dutelako, baina sakandarrak ez dira fio. "Victorren eta Mariezkurrenaren kontrako partida oso



Ezkurdiak eta Martijak 22 eta 19 irabazi zieten Jakari eta Zabaletari. EIDER MUGARTEGI

arriskutsua da. Presio guztia guretako da, eta eurak, aldiz, txapelketan aurrera egiteko aukerarik gabe daude eta lasai jokatu dute. Nik aurreko partidaren oso ongi ibili zen Victorrek ekidin beharko dut, eta Mariezkurrenari pilota arrimatu" azaldu zuen Martijak material aukeraketan. Txapelketan orain arte egindako lanarekin kontentua dago Etxeberrikoa. "Larunbatean Markinan Jakaren eta Zabaletaren kontra lortu genuen garaipena (22 eta 19) oso garrantzitsua izan zen, ez soilik

6. puntu lortu genuelako, txapelketako liderrei irabazteak ematen dizun konfiantzagatik baita ere. Txapelketako orain arteko partidari onena jokatu nuen" aitortu zuen atzelari sakandarrak. Zallan jokatzeko duen lehenengo aldia izango du gaur Martijak. "Materiala ona da, bai gurea eta bai euren. Lehen aldiz ariko naiz Zallan, baina frontoi ona iruditu zait; hori bai, lurra lehorregia da" aipatu zuen. Joseba Ezkurdiak, aldiz, azaldu zuen pilotak "nahiko azkar" gatzatzen zirela Zallan.

Victorrek nabarmendu zuen txapelketan aritzea aukera ederra dela berarendako. "Txapelketa honek exijitzen duen mailan eta erritmoan jartzea nahi dut" adierazi zuen. Halaber, presio guztia Ezkurdiak eta Martijak dutela gaineratu zuen. "Beraiek dira puntuak jokoan dutenak, guk baino gehiago. Hala ere, guk gure 2. puntu izango litzatekeena lortu nahi dugu, eta, bide batez, gure enpresako kideak lagundu" aitortu zuen. Jon Mariezkurrenak aipatu zuen "jokoa hobetzea" dela bere helburua. Beraz, Zallako partida konplikatu izango dela aurreikusten da.

Jakak eta Zabaletak 9. puntu nahi dute

Bihar, larunbata, Idiazabalen, Jakak eta Zabaletak Laso eta Albisu izanen dituzte arerio (18:00). Ezkurdiaren eta Zabaletaren kontra galdu eta gero, garaipenaren bidea berreskuratzea nahi dute liderrek. 8 puntu dituzte, eta 9. puntu lortu nahi dute, lidergoa sendotzeko. Laso eta Albisuk, aldiz, 6 puntu dituzte eta 7. puntu nahi dute. Beraz, partida garrantzitsua da biharkoa, bi bikoek asko dutelako jokoan. Dena ematera aterako dira, eta biak ala biak sasoi bikainean daude.

Irabaziz gero, Jakak eta Zabaletak euren lidergoa sendotzeaz gain, Ezkurdiari eta Martijari fabore ederra egingo liekete, Laso eta Albisu euren arerio zuzenak direlako. Bestalde, bihar, larunbata, Irribarriak eta Rezustak Artolaren eta Imazen kontra jokatu dute Labriten (18:00, ETB1), eta igandean, Tolosan, Olaizola II.-Urrutikoetxearen kontra ariko dira Altuna III.a-Ladis Galarza (17:00, ETB1).

SAKANAKO TOPAKETAK

KIMUAK. 2. ITZULIKO 1. JARDUNA

IGANDEAN ALTSASUKO DANTZALEKUN

10:00 Etxarri-Epele - Lagun Artea 08

10:00 Altsasu A - Altsasu B

11:00 Sutegi - Altsasu C

11:00 Etxarri-Hartzabal - Etxarri Danbolintx.

Aitseden: Lagun Artea 09

BENJAMINAK. 5. JARDUNALDIA

IGANDEAN BETELUN

10:00 Betelu - Altsasu A

11:00 Urdiain - Aralar Mendi

12:00 Etxarri Aranatz - Altsasu C

13:00 Sutegi - Altsasu B

ELOMENDI TXAPELKETA

14. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Zaldua - Roca 10-1

SAILKAPENA

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

1 Barasoain 36

2 Zaldua 31

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

Z/G Modernillo - Zaldua (Muru-Astrain)

Zaldua bigarren postura igo da

Zalduak gol festa ederra ospatu zuen Rocari 10 eta 1 irabazita.

FUTBOL PREFERENTEA

16. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Ilunberri - Lagun Artea 1-0

Etxarri Aranatz - San Jorge 1-1

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Beti Casedano 30

3 Lakuntzako Lagun Artea 28

15 Etxarri Aranatz 15

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:00 Lagun Artea - Ondalan (Lakuntza)

16:30 Mutilbera - Etxarri (Aranguren)

Erdipurdiko jardunaldia

Ilunberri eta Lagun Artea parez pare ibili ziren, aparteko aukerarik sortu gabe. Azkenean, Etxebek Ilunberri aurreratu zuen, eta lakuntzarrak saiatu ziren, baina gol aukerak huts egin zituzten eta punturik gabe etorri ziren Ilunberriatik.

Etxarri Aranatzek San Jorge hartu zuen. Bigarren zatian Etxarri dominatzen hasi zen, baina hobekien ari zenean San Jorgek gola sartu zuen. Gorritxoek ez zuten etsi eta berdintzea lortu zuen Javik, baina ezin izan zuten garaipena lortu.

ERREGIONALA GIZONAK

16. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Aurrera - Altsasu 2-4

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA

1 Universidad de Navarra 37

11 Altsasu 13

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:00 Berriozar - Altsasu (Berriozar)

Altsasuren garaipen garrantzitsua

Leitzan, Aurrera sartu zuen lehen gola, baina euren bi despiste aprobetxatuz Raulek eta Imanol Lobok Altsasu aurreratu zuten. 2. zatian Javier Guisadok eta Patxiok gola sartu eta, azkenean 2 eta 4 irabazi zuen Altsasuk.

ERREGIONALA EMAKUM.

18. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Izarra 3-2

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Castejon 47

7 Altsasu 30

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:00 Baztan - Altsasu (Elizondo)

Bigarren garaipena segidan

0 eta 2 aurreratu zen Izarra, baina Amets Oteizak sartutako hat-trickarekin garaipena Altsasun geratu zen.

ARETO FUTBOLA Berdeek ezin izan zuten erremontatu

Cartagenaren kontra aritu zen Osasuna Magna Xota, Murtzian. Baloiaren jabetza hartu zuen talde nafarrak, baina gutxika etxeko taldea esnatu egin zen, eta jokalar berdeak ia konturatu gabe 3 gol sartu zituen Cartagenak. Markagailua 6 eta 1 zihuan Osasuna Magnak erantzun zuenerako. Araça atezain-jokalar jarri zuen Imanol Arre-

gik, eta estrategia ongi ateratu zen. 5 gol sartu zituen talde nafarrak, baina ez zen nahikoa izan eta azkenean 7 eta 6 galdu zuten berdeek. "Lehen zati txarra egin dugu; ia erremontada gauzatzeaz egon gara, baina egin dugun partida ikusita, ez dugu berdintzea merezi izan" aitortu zuen teknikariak. Movistar Inter da lider (47 puntu), eta Osasuna Magna 6. postura jaitsi da (35 puntu). Hurrengo jardunaldian liderraren kontra ariko da Osasuna Magna, otsailaren 15ean.



Idiazabalgo krosa. GOIERRIKO HITZA

Audikana eta Estarriaga sakandar azkarrenak

ATLETISMOA Igandean 647 korrikalarik osatu zuten XL. Idiazabalgo Herri-krosa, 12 sakandar tartean

Igandean XL. Idiazabalgo Herri-krosa jokatu zen (10,2 km). 647 korrikalarik osatu zuten proba, Chakib Lachgar (31:19), eta Maite Arraiza (37:38) buru zirela. 12 sakandarrek gurutzatu zuten helmuga eta azkarrenak Raul Audikana olaztiarra (34:45) eta Leire Estarriaga etxarriarra izan ziren (46:41).

Sakandarrak

Gizonak

1.Chakib Lachgar (Errenteria)	31:19
19.Raul Audikana (Olaz)	34:45
63.Asier Estarriaga (Etx)	37:18
66.Felix Benjumea (Alts)	37:29
132.Juan Luis Maiza (Etx)	40:15
143.Tomas Guirado (Alts)	40:40
271.Santi Agirre (Itur)	44:54
321.Kaxi Estarriaga (Etx)	46:47
342.Ismael L. de Goikoetxea (Alts)	47:29
378.Juantxo Azurmendi (Alts)	48:59
427.Aingeru Azazeta (Alts)	50:58

Emakumeak

71.Maite Arraiza (Lazkao)	37:38
320.Leire Estarriaga (Etx)	46:41
429.Ainhoa Markinez (Olaz)	51:08



Sekulako giroa egon zen larunbatean Olaztin eta lasterketa ederrak ikusteko aukera egon zen. SAKANA PATIN

Olaztiko indoorrean gure irristalariak bikain

IRRISTAKETA Nafarroako Abiadura Irristaketa Indoor Txapelketako 1. jardunaldia jokatu zen larunbatean Olaztin, Sakana Patin taldeak antolatuta. Iratxe eta Anne Lapuente ahizpa ziordiarrek podiumaren gorenera igo ziren

Nafarroako Abiadura Irristaketa Indoor Txapelketa larunbatean hasi zen Olaztin. Hain zuzen ere, aipatu txapelketako I. Jardunaldia hartu zuen Olaztiko Erburua kiroldegiak. Txapelketa Nafarroako Irristaketa Federazioak antolatzen du, baina antolaketan Sakana Patin Taldea ibili zen. Ehundik gora irristalari bildu ziren, kategoria guztietan jokatu baitzen proba: mini mailatik hasi, seniorren mailara bitartean.

Bertakoak eta urrunekoak

Sakana Patin taldeak adierazi digutenez, bertako irristalariak gain, Zaragozatik edo Burgostik hurbildutako taldeek hartu zuten parte Olaztin. Puntako lasterketez gozatzeko aukera eskaini

zuten, eta sakandarrek primerako maila eman zuten.

Sakandarren podiumak

Benjaminetan, gizonezkoetan, Eneko Igoa Aboitiz etxarriarra (Patin Sakana) bigarrena izan zen 400 m linean. Haurren emakumezkoen mailan, Iratxe Lapuente Perezziordiarra (Lagunak) txapelduna izan zen 480 m linean eta hirugarrena 640 m linean, eta juniorren emakumezkoen mailan, Anne Lapuente Perez bere ahizpak 480 lineako eta 680 m lineako lasterketak irabazi zituen. Bukatzeko, gizonezkoen senior mailan Unai Villalobos Hernaz altsasuarra (Lagunak) hirugarrena sailkatu zen bi probatan: 480 m linea eta 680 m linea.

25 gazte Sakana Patin taldean

Jardunaldia etxean jokatzeko zela probestuz, Sakana Patin taldeak aurkezpena egin zuen. Egun, 25 neska-mutiko trebatzen dira, aurrebenjamin mailatik hasita master mailaraino, Oskar Zamarron entrenatzailearen aginduetara. Nafarroako eta inguruetako irristaketa txapelketa eta lehiaketetarako prestatzeaz gain, Sakana Patin taldeak Altsasuko irristaketa eskolaren ardura du, Altsasuko udalarekin duen hitzarmenari esker.

Sakanan pista estalia izatearen beharra

Sarritan aipatu dugun moduan, gurean irristaketa sustatzea, hori da Sakana Patin taldearen

helburuetako bat, irristaketa probak bulkatzearekin batera. Sakanan irristalari asko daude, eta pista bat egiteko beharra da Sakana Patin taldeak aspaldidantik aldarrikatzen duena. "Ibarran irristaketarako araudizko pista bat sortzea aldarrikatzen dugu aspalditik, irristalariak baldintza egokietan entrenatu ahal izateko. Sakana Patin taldean 25 gazte trebatzen dira, baina adin batera iristean, sakandar askok Iruñeko taldeetara jotzen dute, Lagunak, Amaya eta halako taldeetara, hemen pistarik ez dagoenez, eta ezin denez behar bezala entrenatu, beste taldeetan aritzeko. Irristalari sakandar asko daude ere Sakana Patin taldeetik kanpo. Horregatik, Sakanan irristaketarako eta beste kirol batzuetarako erabilgarria izango den pista estali bat egiteko aldarriarekin jarraitzen dugu. Hori da gure helburu nagusia eta pista hori ez izatea da, momentuz, gure porrotik nagusia, Altsasuko kirolaren, Sakanako Mankomunitatearen eta Nafarroako Kirol Institutuarendako porrota den bezala, gure gazteak adin batetara iristen direnean, irristaketa jarraitzeko Iruñera joan beharra dutelako, horrek familiei eskatzen dien sakrifizioarekin, edo, bestela, irristaketa uzten dutelako" adierazi digu Sakana Patin taldeko Iñigo Lapuente.

Basauriko dominak

Ilbeltzaren 18an Basroller taldeak antolatutako Basauriko indoor irristaketa proba jokatu zen eta bertan aritu ziren sakandarrak. Enara Arregi (Patin Sakana), Oskar Zamarron (Patin Sakana) eta Unai Villalobos (Lagunak) altsasuarrak podiumera igo ziren, Arregi 3. postuan eta Zamarron eta Villalobos 2. postuan.



Sakana Patin taldeko bi irristalari, ahalegin betean. SAKANA PATIN



Sakana Patin taldekoek talde argazkia atera zuten Olaztin. SAKANA PATIN

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Euskadi Fundazioa aurten UCI Pro Team taldea izango da, talde kontinental profesionala. UCIn 2. mailan lehiatuko da, Euskadi-Orbea Fundazioa izenarekin.

Jorge Azanza zuzendari altsasuarra atzo hasi zuen denboraldia, Mallorcako Challengean. **Burunda klubean trebatu ziren txirrindulari gisa, gero Rural Kutxa afizionatuen talde sakandarrean ibili ziren eta profesionaletan Kaikurekin debutatu zenuen, Oscar Guerrero altsasuarraren aginduetara. Oso etxeko kontua, ez?**

Bai, Oscarrekin betidanik oso harreman estua izan dut. Gazte garaian jarraitzen ninduen, Rural Kutxan bera zuzendari zela berak afizionatuetara pasatzeko aukera eman zidan, 4 urte eman nituen bertan eta gero Oscarrekin profesionaletara salto egin nuen, Kaiku taldean.

Kaikuko mailot arrosarekin baino, Euskalteleko mailot laranjaekin gogoratzen zaitugu gehiago...

2006an lehendabiziko kontratua sinatu nuen Euskaltelekin eta taldearen bukaerara arte bertan eman nituen 8 denboraldi.

Euskal Herriko txirrindularitza urrezko urteak izan ziren haiek, marea laranjaenak.

Bai, hura bizi ahal izatea zortea izan zen. Oso momentu politikak bizi izan nituen, baita momentu gogorak ere. Baina azkenean hori da bizitza, hori da txirrindularitza, eta momentu on bat izateko txar asko pasa behar dira. Horrek ere laguntzen zaitu maila pertsonalean hazten eta pertsona indartsuago egiten, eta horrek ere nire egungo lanpostuan laguntzen nau.

Txirrindularitza oso kirol gogorra da.

Ez bakarrik gogorra praktikan. Eraman behar duzun bizimodua oso sakrifikatua da. Etxetik kanpo egun asko, ordu askoko entrenamenduak egunero... Gogorra da, baina, nolabait ere, asko betetzen du. Oso polita da gero lasterketa horietan parte hartzea, zure kirolarekin bizimodua egitea; alde zoragarriak dauzka.

2013ko denboraldia bukatuta desagertu zen Euskaltel, baina 2014an amateur mailako Euskadi Fundazioa entrenatzen hasi zinen.

Euskaltel desagertzean, 2014 urtean pixka bat deskolokatuta geratu nintzen. Mundu honetan segitu nahi nuen baina ez nuen argi ikusten. Euskaltelen zuzendaritzan aritutako Gorka Gerri-

"Taldeak nola engranatzeko duen ikusteko gogoak ditut"

JORGE AZANZA EUSKADI-ORBEA FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

TXIRRINDULARITZA Euskadi Fundazioak saltoa eman du eta aurten UCI Pro Team taldea da. Talde laranja denboraldia hasi du eta oso ilusionatuta dago Jorge Azanza



Jorge Azanzak atzo ekin zion denboraldiari, Mallorcako Challengean. UTZITAKOA

kagoitiak deitu ninduen ea Euskadiko Fundazioako afizionatuen taldeko zuzendari izan nahi nuen galdetzeko. Eta ez nuen zalantzarik izan. Horrekin batera, IBEF, Soin Hezkuntzako Unibertsitateko ikasketak berreskuratu nituen. 2 kurtso gelditzen zitzaizkidan, eta haiek bukatu nituen. Nire lanerako asko balio izan dit ikaskuntzak.

Zuzendari bezala zure lehendabiziko pausuak amateur mailan izatea ongi etorriko zitzaizun.

Bai, garrantzitsua da, maila gorenean zuzenean hasiz gero, akaso zure burua galdua ikusi dezakezulako. Dena den, gurea ez zen talde arrunta; nik erreferentzia zen talde bat hartu nuen, Euskadi, oso talde potentea, baina amateur mailan. Zuzendari amateur moduan 3 urte eman nituen eta 2018an profesionalen kontinental mailara pasatu zen taldea.

Afizionatuen mailako zer balantze egiten duzu?

Oso polita. Hor jabetu nintzen txirrindularitza zuzendari izatea pila bat gustatzen zitzaidala. Esan dizudan bezala, 2014ko hasieran ez nuen oso garbi, baina hasi

"AFIZIONATUEKIN LAN EGITEN JABETU NINTZEN HORI ZELA NIRE BOKAZIOA, ZUZENDARIA IZATEA"

nintzen eta ikusi nuen hori zela nire bokazioa, zuzendari izatea eta mutilekin egotea. Amateur maila zoragarria da txirrindulariak 18 urterekin hartu eta 22 urte bitartean hor izaten dituzulako. Formazio garaian daude, eta tarte horretan oso garrantzitsua da zure zuzendaria. Ni asko inplikatu nintzen. Orain, profesionaletan, ezberdina da. Txirrindulariekin ez duzu ia egunero kontaktu hori, bakarrik lasterketetan zaude beraiekin.

Amateur mailako "seme" horiek, guztiak hazi zaizkizu (kar, kar...)

(Kar kar...) Nik, egia esan, hala sentitzen nuen, beraiekin egiten duzun lotura oso estua da. Ordu asko sartzen dituzu beraiekin, lasterketa asko, hotel eta bidai askotan egun asko... Oso polita da baina oso estresagarria ere. Beti hemendik hara, batekin, bestearekin... 15-20 txirrindulari ziren eta guztiak zituzten euren arazoak, fisikoak, pertsonalak... eta zu gertu, beraiei laguntzeko. Polita da baina oso lanpetuta ibiltzekoa ere.

Aurten salto potoloa eman du taldeak. Euskadi-Orbea Fundazioa izenarekin lehiatuko zarete UCI-ko 2. mailan.

Bai, UCI-n ("Union Ciclista Internacional" delakoa) Fundacion Euskadi-Orbea izenarekin agertzen da gure taldea.

Profesional mailan nola aldatu da zure zuzendari lana?

Txirrindulariekin duzun loturak oso estua izaten jarraitzen du, baina lasterketetan gaudenean egoten gara soilik elkarrekin. Bestalde, amateur eta kontinental mailatan nengoenean talde guztien prestatzaile fisikoa nintzen; orain prestatzaile fisiko bezala 7 txirrindulariekin nago. Zazpi txirrindulari hauen prestakuntza fisikoaz arduratzeaz gain, staff edo lan talde guztia antolatu beharra dut. Finean, taldeko kudeatzailea naiz. Guztia antolatu behar dut, lasterketekin harremanak egin, izena emateak kudeatu, bidaiak antolatu.... Honek lan asko dakar, ez baita bakarrik lasterketa bat egin eta listo, lasterketa batetara joan baino lehen jada hurrengo prestakuntza ari zara: nola eramango ditut autoak, bi talde antolatu, batzuk Andaluziara doazelako eta besteak Algarvera... Hori guztia lotzeko eta engranatzeko antolaketa handia dago atzean, eta jende asko behar da. Iaz staffean lau langile geunden bakarrik: bi masajista, me-

kanikari bat eta ni. Egun, 11 pertsona finko gaude staffean lanean eta egun zehatzetan etortzen diren beste batzuk ere. Nire egitekoa da guztia antolatzea, baina partzela bakoitzean, beste arduradun batzuk daude. Esaterako, masajistak arduratzen dira materialez, lasterketetan garbigailuak antolatzez, masajeak ematez, hornidurak prestatzez... staff oso konpetente bat dut eta oso lasai nago arlo horretan.

Proba bakoitzera doazen txirrindulariak ere zuk aukeratzen dituzu.

Bai, kirol arloko arduraduna naiz. Hortaz, kirol arloan ematen den guztia da nire betebeharrak: zein karreratan ariko garen hautatu, zein talde eraman lasterketa batera edo bestera...

Eta zein dira aurten zure esanetara dituzun harri bitxiak?

Txirrindulari oso kontrastatuak fitxatu ditugu, indartsuak, profesionaletan lasterketak irabazi dituztenak, Juanjo Lobato esaterako, edo Ruben Fernandez. Euskaldunen artean Mikel Bizkarra, Mikel Iturria eta gazteetatik nirekin trebatu direnak daude, etorkizunerako oso ondo prestatuak daudenak: Gotzon Martin, Ibai Azurmendi, Unai Cuadrado, Txomin Juaristi... Ez naiz batekin gelditzen zeren talde honen puntu indartsuena hori da, egitura solido bat dela.

Beraz, kontentu zaude duzun taldearekin.

Bai, oso pozik. Niretzat nire taldean daudenak beti dira hobereak, bai txirrindulariak eta bai staffeko langileak ere, eta hala transmititzen diet beraiei: Horrela motibatzen badituzu, asko ematen dute guztiak.

Mikel Landa talde lanaren sartzeko Euskadi Fundazioa indartu zuen.

Guztiz, fundazioarendako errebutzibot bat izan zen. Mikel Landarekin harreman oso estua nuen. Taldea amateurrean zegoenean apenas zuen laguntzarik, noraez zebilen. Berarekin eta bere managerrarekin bildu eta esan nien beraiek taldean sartuz gero, ziurrenik horrek jendearengan ilusioa berpiztuko zuela eta hala izan zen. Landak ez zuen taldean sartzeko inolako zalantzarik izan

"VUELTAKO GONBIDAPENA LORTZEKO NAHIA DUGU; GOGOR EGINGO DUGU LAN"

eta gaur egunera arte. Lehen urtean pausuak eman ziren taldea kontinental mailara pasatzeko eta aurten pausua eman da profesional mailara pasatzeko.

Aurreko asteartean egin zenuten aurkezpena San Mamesen, eta Espainiako Vueltako gonbidapena lortzeko nahia jarri zenuten agerian...

Bai, Vueltako gonbidapena buruan sartuta dugu, eta lehendabiziko lasterketatik buru-belarri egongo gara oso talde lehiakorra eta konpetentea dugula erakusten, Espainiako Vueltan toki bat izateko. Badakigu ez dela erraza izango, baina guk dena emango dugu, ahalik eta hobekien lehiatuko gara, eta gonbidapenak emango dituztenei erakutsiko diegu gure taldeak gonbidapen bat eskuratzea posible duela.

Iraganetik ezin da bizi, baina nazioarte mailan euskal txirrindularitza asko baloratzen dute eta horrek ere eragina izango du, ez?

Gurea ez da talde berri arrunt bat. Aurretik bizitakoa hor dago. Atzerrian esaten baduzu Euskaltel berria garela edo Euskaltel izandakoa berreskuratzeaz gaudela, jendeak ezagutzen zaitu eta horrek ateak irekitzen dizkizu. Egutegia lotzen ari gara, baina lasterketa oso indartsuek gonbidatu gaituzte. Hori poztekoa da, eta horrek motibatzen zaitu zure lana ahalik eta egokien egiteko.

Noiz hasiko zarete?

Gure talde bat Argentinan dago, igandetik San Juan Tourrean lehian. Ni Mallorcako Challengean hasiko naiz, aste honetan (atzo).

Urduri zaude?

Gogo asko ditut hasteko. Denboraldi hasieran beti ilusioa izaten dut, baina aurten taldeak nola engranatzeko duen ikusteko gogoak dauzkat, ea lehen egunetik nola ibiltzen den. Hori da nire ardura, lehen momentutik mailarik altuena ematen saiatzea, dinamika hori hartu eta horretan jarraitzea.

Eta hau guztia nola uztartzen duzu familiarekin?

Nire familiak badaki nirea txirrindularitzarekin pasioa dela; lana izateaz aparte munduan gehien gustatzen zaidana da txirrindularitza eta bere mundua. Lasterketak egingo ditut, baina nagusienak. Kudeaketaz arduratuko naiz, ahal dudana etxetik ariko naiz. Etxean ulertzen dute, eta nirekin daude 100 bider 100. Zoriontsu naiz, baina badakigu honek buelta eman dezakeela, onera eta txarrera. Hortaz, eguneko lana da garrantzitsua.



RURAL KUTXA-SEGUROS RGA

Rural Kutxaren aurkezpena

TXIRRINDULARITZA Rural Kutxa-Seguros RGA taldeak 2020ko aurkezpena egin zuen ostegunean, Iruñean. Talde profesionala eta talde amateurra aurkeztu zituen. Afizionatuen taldean sei euskaldun daude, Josu Etxeberria Azpilikueta tartean. Iturmendiarrak afizionatuen

2. denboraldiari ekingo dio. Iaz Palentziako Itzuliko etapa bat irabazi eta 15 lasterketetan Top-10 edo lehen hamar postuetan sailkatu zen. Bere helburua ahalik eta denboraldi onena egitea da, profesionaltasunera saltoa egitea baitu amets.

Aspalditik gatoz eta
#UrrutiraGoaz
Hautatu euskarazko irakaskuntza
eta bidaiarik hobereana oparituko diezu

D EREDUA
Beren desioak
betetzeko tresna

Mank
sakana

2020-2021 Eskolatzeara

QR code: [Bere desioak betetzeko tresna](#)



Iñigo Zabalo eta bere taldekideak larunbatean lortutako Irlandako Kopa ospatzen. BALLINCOLLIG

Iñigo Zabalo Irlandako Kopa altxatu zuen

SASKIBALOA Iñigo Zabalo saskibaloia jokalaria altsasuarraren Tradehouse Central Ballincollig taldeak 73 eta 67 hartu zuen mendean IT Carlow taldea larunbatean Dublinen jokatutako Irlandako Kopako finalean

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Berri pozgarriak datoz Irlandatik. Iñigo Zabalo Oiarbide altsasuarrak Corkeko Tradehouse Central Ballincollig saskibaloia taldeko jokalaria da, base postuan jokatzen du, eta bere taldeak Irlandako Kopako finala jokatzen duen larunbatean Dublinen, IT Carlow taldearen kontra. Ballincollig taldea zen faboritua baina Iñigok aurreko astean adierazi zigun bezala, finala partida batera jokatzen zen eta edozer gerta ahal zen bertan. Finala oso estua izan zen, zirrargarria.

24 eta 8 galtzetik, irabaztera Finala ez zen ongi hasi Zabaloren taldearendako. "Egia esan, par-

tida nahiko txarra egin genuen, lehen tartean bereziki. Momentu batean 24 eta 8 galtzen joan ginen. Ez dakit urduritasuna zen edo zer gertatu zitzaigun, baina hiruko marratik egindako 20 jaurtiketatik soilik 1 saskiratu genuen. Batz besteko oso txarra da hori. Eta ligan daramagun bolada bikaina kontuan hartuta, markagailuan diferentzia hori ikustea oso zaila egiten zitzaigun" azaldu digu Zabalo.

Baina, zorionez markagailuari buelta ematea lortu zuen Ballincolligek. Zabalo eta Andre Nation estatubatuarrak gidatutako erremontadan, partidari buelta eman eta, azkenean Ballincollig taldeak lortu zuen kopa,

IT Carlow taldeari 73 eta 67 irabazi eta gero. Taldeko saskirantzaille nagusiak Zabalo (15 puntu) eta Nation (27 puntu) izan ziren. Hortaz, kopa irabazteagatik oso pozik daude Zabalo eta taldekideak.

Ospakizunak

Lortutako kopa ospatzen gustura ibili dira egunotan. "Corkeko hainbat pubetan egon ginen ospatzen. Hemen ohitura da lortutako kopa Guinness garagardoaz betetzea eta guztion artean edatea. Egia esan, gustura ibili gara" gaineratu du Zabalo. Eta, jakina, saskibaloia mundua aztoratu duen Kobe Bryant Lakerseko saskibaloia jokalaria ohiaren eta

berarekin helikopteroan zihoenen heriotzak Ballincolligeko jokalaria ere ukitu zituen. "Estatubatuarren idoloa zen Bryant, eta badakizu nolakoak diren amerikarrak horretarako. Hala-ko istripuak, tamalez, gertatzen dira" aipatu du altsasuarrak.

Orain liga

Tradehouse Central Ballincollig Irlandako 2. mailako taldea da, baina aurtan 1. mailara igotzea da erronka. Bide onean doaz, orain arte jokatutako partida guztiak irabazi dituztelako. Zabalo adierazi digunez, gauzak horrela segituz gero, baliteke hilabete batean matematikoki liga irabaztea. Beraz, larunbatean Irlandako Kopa irabazita eta 1. mailako igoera gertu izanda, ospatzeko asko badute oraindik Zabalo eta bere taldeak.

CBASK-en garaipena

Nafarroako eta Errioxako taldeak lehiatzen diren Gizonezkoen Autonomien Arteko 2. mailan, CBASK-Jatormaneke Errioxako CB Sanignacio taldea hartu zuen Zelandin. Merezitako eta esperotako garaipena lortu zuten altsasuarrak, 71 eta 60. Saikapenean, Club Baloncesto Cenicero da liderra (25 puntu) eta CBASK-Jatorman 10. postuan dago (18 puntu). Larunbatean CBASK-ek Iruñean jokatuko du, 20:00etan, saikapenean 12.a den eta arerio zuzena den Larraonaren kontra.

Mundialeko esperientziaz gozatu nahi du Igor Arrietak

ZIKLO-KROSA Dübendorfen jokatuko diren Mundialetan arituko da uhartearra, igandean

Asteburuan Suitzako Dübendorfen Munduko Ziklo-kros Txapelketak jokatuko dira Espainiako Ziklo-kros selekzioak deituta, bertan ariko da Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrieta Lizarraga juniorra. Uhartea Arakilgo txirrindulariak Aitzol Sasieta, Alain Suarez, Sergio Carrasco eta Miguel Diaz eta Lucia Gomez, Ainara Albert eta Maria Parajon izango dituzte taldekide junior mailan. Felipe Orts eta Kevin Suarez eta Lucia Gonzalez, Aida Nuño eta Paula Diaz dira selekzioako elite mailako kideak; eta Ivan Feijóo, Jofre Cullell, Carlos Canal, Xabier Murias eta Sofia Rodriguez, Irene Trabazo, Paula Suarez eta Sara Bonillo 23 urtez azpikoak.

Esperientziaz gozatu

Gizonezkoen junior mailako lasterketa igandean jokatuko da, otsailaren 2an, goizeko 11:00etan. Igor Arrieta Espainiako Ziklo-kros txapeladuna da, eta Mundialetan aritzeko aukera duelako oso pozik dagoela adierazi du. "Lasterketan ahalik eta irteera hobe egitea eta egoki kokatzea da nire nahia; finean, guztia eman eta ahal dudana egitea, Mundialetan aritzeko esperientziaz gozatzea" azaldu digu Igorrek.

bardoak

2020

Nafarroako Taldeko Bertsoari Txapelketa
Urtarrilaren 31tik Martxoaren 28ra

ITURMENDI

Urtarrilak 31 ostirala.
Gaztetxean, 21:30ean.

Sakaña
(Sakana)

Drimtin
(Arrobapea Iruñea)

Antolatzailea: www.bertsozale.eus

1. fasea

Laguntzailea: **GUBIXO**

Santa Agedari kantatzera aterako dira asteartean

Otsailaren 4an Santa Ageda bezpera izanen da, eta tradizioari jarraiki, koruak abesten arituko dira

IRAÑETA / ETXARRI ARANATZ / ALTSASU
Zorion etxe hontako denoi, oles egitera gatoz, ez gaude oso aberats diruz, ezta ere oinetakoz, baina ezta nahi degu gogoz... Kopla hauek Sakanako hainbat herritan errepikatuko dira otsailaren 4an, asteartean, Santa Ageda bezperan. Makilak eskuetan eta erritmoa markatzeko lurra joz Santa Ageda koruak tradizioarekin jarraituko dute beste urte batez, negua pixkanaka joaten ari dela eta lurra esnatzen ari dela ospatuz. Santa Ageda Siziliako martiriaren inguruko abestiak dira egun honetako erreperitorioa osatzen dutenak. Abesbatzak ez ezik, norberak duen kantaria kalera ateratzen du.

Irañetan, urtero moduan, herriaren barna Santa Ageda kopla kantari ariko dira. 18:30ean jarri dute hitzordua eta herriaren barna kantari ibili ondoren, elkartean guztiendako txistorra eta urdaia izanen dira. Korua ongi antolatzea errazteko igandera arte eman daiteke izena elkartean.

Etxarri Aranazko ikastetxetako ikasleak goizean aterako dira Santa Agedari abestera. Herriari bueltatxo bat eman ondoren, plazan bilduko dira emandako xumea egiteko. Arratsaldean, 18:30ean, Etxarri Aranazko Udala Musika eskolako ikasleak, Etxarri kantuz taldea eta Etxarri Aranazko Abesbatza kantuan aterako dira. Ondoren, plazan txokolatada izanen da.

Altsasun hainbat koru aterako dira. Alde batetik, Kukuerreko kantu poteo taldea urtero bezala 19:00ak aldera aterako da koplak kantatzera eta, bigarren urtez, Lagun Onak elkarteko korua ere aterako da (ikus 24 or). Abestiren bat elkarrekin abestuko dutela ere aurreikusitako elkarteko kideek. Musika eta Dantza Eskolako ikasleak ere kalera kantatzera aterako dira.



Bardoak 2020 egitasmoaren aurkezpenaren parte hartuko duten bertsolariak bildu ziren. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsolaritza Nafarroatik zabalduko dute

Sakanako talde batek parte hartuko du Nafarroako Taldekako Bertso Txapelketaren bosgarren edizioan: Sakaña. Gaur, ostirala, txapelketaren lehenengo izanen dute Iturmendiko gaztetxean, 21:30ean, Dimtrin taldearen aurka

Beleixe / Guaixe SAKANA / ITURMENDI
Nafarroako gazteen eta helduen bertso eskolatan "ari diren guztiei" bultzada emateko, bertso eskolen artean harremanak bultzatzeko eta "beste mota bateko" saioak antolatzeko sortu zen, besteak beste, 2012an Bardoak Nafarroako Taldekako Bertso Txapelketa. "Aurretik Nafarroako Bertsolari Txapelketa urtero egiten zen, eta ikusi zen urteroko erritmo horrek kanpoan uzten zuela Nafarroako bertsolaritzaren parte den mugimendu zabal bat edota bestelako esparruak eta formatuak". Ander Perez Nafarroako Bertsozale Elkartearen koordinatzailea da, eta Bardoak txapelketaren bosgarren edizioak "hasierako helburu" berdinak mantentzen dituela azaldu du.

Gaur, ilbeltzaren 31, ostirala, hasiko da Taldekako Bertso Txapelketa Etxarri Larraunen, Iruñeko Txantrea auzoan eta Iturmendin. Bardoak egitasmoaren lehenengo asteburuaren saioek bihar eta etzi jarraituko dute

Erron eta Beran, hurrenez hurren. Sakaña Sakanako bertsolarien taldeak "etxean" jokatu du gaur, 21:30ean, Iturmendiko gaztetxean, Arrotxapeko Dimtrin taldearen aurka. Ekain Alegre, Eneko Lazkoz, Idoia Granizo, Joxema Leitza, Saats Karasatorre eta Unai Artida bertsolari sakandarrek osatzen dute taldea.

Guztira hamahiru talde parte hartuko dute Taldekako Bertso Txapelketan. Guztira, 100 bat pertsona ariko dira egitasmoa Nafarroako hainbat auzora, eskualdera eta herrira iristeko lanean. Auzolana eta talde lana ezinbestekoak dira: "Ez bakarrik kontu logistikoagatik. Proiektuari zentzua ematen diona da. Ez ginateke oso ongi ibiliko herrietan eta bertso eskolatan eragin eta bultzada ematea nahi eta hori dena modu zentralizatu batean antolatuko bagenu". Perezendako egitasmoaren "gakoa" hori da. "Taldea eta eskualde desberdinetako taldeek bere gain

hartzen dute bere saioaren antolaketa, eta horrek bere inguruan jende pila bat lotzen du". Bertsoaren inguruan edo "bertsoaren ekosisteman" arrastoa duela gaineratu du: "Jendea inplikatzeko da, jendeari parte hartzeko moduak eskaintzen zaizkio".

Gaur hasi eta martxoaren 28an jokatu da finala, Lizarran. Bardoak txapelketaren aurreko edizioetan saioak parte hartzaileen herrietan, eskualdetan edo auzoetan egiten ziren, baina aurten berrikuntza bat dago: "Bi faseetan parte hartzaileek beraiek antolatzen zituzten saioak, beraz, lehenengo faseetik finalaurreko pasatzen zirenek bigarren saio bat antolatu behar zuten. Lan karga zen". Gainera, txapel-

BESTE MODU BATERA TXAPELKETA IRITSIKO EZ ZEN TOKIETARA ZABALDU DUTE BARDOAK

ketan parte hartzen duten taldeen herriak eta eskualdeak "antzekoak" zirenetan "ez genuen lortzen" egitasmoa Nafarroako beste eskualdetara zabaltzea. Horregatik aurten finalaurreko sei saioak "taldeak sortzen ez direlako egitasmoa iritsiko ez ziren" herrietan antolatzea erabaki dute: Aniz, Atarrabia, Goizueta, Jaunsarats, Tafalla eta Tutereta.

Guztira 20 saio egingen dira Nafarroako 17 udalerritan. Bertsolarien hamahiru taldeak lau multzotan banatuta daude. Sakaña D multzoan dago. Lehenengo fasea gaur eta otsailaren 14ra bitarte jokatu da, eta multzoka lehiatuko dira taldeak. Hamahiru saio egingen dira. Hortaz, multzo bakoitzeko lehenengoak eta bigarrenak sailkatuko dira finalaurrekoetarako, otsailaren 29tik martxoaren 14ra jokatu direnak. Finala Lizarrako Lizarra ikastolako areto nagusian jokatu da martxoaren 28an. Nafarroa Oinez 2020-rekin elkarlanean antolatu dute "bertsolaritzaren eta euskalgintzaren festa".

Bertsolaritza Nafarroan

"Egia da publiko orokorrarendako Bardoak eta batez ere Txapelketak iristen diren proiektuak direla, baina transmisioan lan egiten duen lan handia dagoela nabarmendu nahi dugu". Dena "osotasun" bat dela dio Perezek. Esaterako, Nafarroako Bertsozale Elkarteak Nafarroako Gobernua eta udalen laguntzarekin momentu honetan Nafarroan 48 ikastetxetan bertsolaritza "transmititzen" ari direla goraiatu du. "2500 ikasle baino gehiagok jasotzen dute eskolan bertan bertsolaritza". Eskolaz kanpo 50 bat eskola daude, "bertsotari aitzeko eta haien herrietan eragiteko, saioak antolatzeko eta bertsolaritzaren transmisio hori egiteko". Nafarroako bertsolaritzaren osasuna "ona" da.

Nafarroako Taldekako Bertso Txapelketaren lehen faseko saioetan beste multzo bateko talde bateko bi kidek epaituko dute saioa, puntuaziorik jarri gabe; ariketaz ariketa talde onena aukeratu. Entzuleek ere zeresana dute eta saioan hobekien nor aritu den baloratzeak aukera izanen dute. Bi horietatik aterako da saio bakoitzeko irabazlea. Txapelketaren inguruko informazio guztia <https://www.bertsozale.eus/eu/nafarroa/bardoak> web orrian aurkitu daiteke.

Haurrendako album ilustratuak sortzeko deia

Nafarroako 22 toki entitateen euskara zerbitzuek, Sakanako Mankomunitatea barne, Etxepare Sariaren edizio berri bat jarri dute martxan. Lanak aurkezteko epea 2020ko maiatzaren 8an, ostiralean, itxiko da

SAKANA

Haurrei zuzenduriko album ilustratuak sortzea du helburu Nafarroako 22 toki entitateek urtero antolatzen duten Etxepare sariketa. Lanak euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Sarian 16 urtez gorako edonork parte har dezake, bakarka edo idazle eta ilustratzaileen bikoteak. Gainera, egileek nahi beste lan aurkez ditzakete. Lanak aurkezteko epea dagoneko zabalik dago eta maiatzaren 8n, ostiralean, bukatuko da. Epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna ekainaren 30a izanen da. Sari bakarria dago: 5.000 euro egile eskubideen aurrerapen moduan.

Album ilustratu bat testua eta irudia elkarren osagarri dituzten lanak dira. Etxepare Sarietara aurkezteko lanen formatua librea da, baina lanak ez dira 20X21 cm baino txikiagoa izanen. Gainera, gutxienez 15 orrialde bikoitz izanen dituzte, barruko orrialdeak kontuan hartuz. Testuek ezin dituzte 4.000 karaktere baino gehiago izan, zuriuneak barne.

Lehiaketan parte hartu nahi duten sortzaileek album ilustratuaren maketa aurkeztu beharko dute; bukatutako albumean agertuko lirakeen testuekin zein ilustrazioekin. Maketa ez da



Album ilustratuak 'Itsaspeko bihotzak' erakusketan. ARTXIBOA

koadernatu beharrik. Gainera, pendrive batean maketaren kopia bat pdf formatuan bidali beharko dute, lan osoa fitxategi bakoitzean. Testua WORD dokumentu batean pendrive-an sartu beharko dute ere. Jatorrizko ilustrazioak entregatzeko aukera ere badago. Guztia Etxepare saria, Leitzako Udala-Euskara Zerbitzua, Elbarren 1, 31880 Leizta (Nafarroa) helbidera bidali behar da.

Lanak izengoitiaz izenpeturik egongo dira. Hortaz, lanarekin batera gutun-azal itxi bat aur-

keztuko da: kanpoaldean lanaren titulua eta goitizena agertuko da eta barruan egilearen edo egileen datuak egonen dira.

Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du euskaraz, eta argitalpenaren Etxepare sariaren aipamena egingen da. Epaimahaia haur literatura eta ilustrazioan adituak diren pertsonak osatuko dute. Euskara teknikari bat izanen da idazkaria.

Sariaren azken lau deialdiaren batean jaso duten idazleen edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dira.

Markotegi eta Nanoipuin lehiaketetan izen ematea zabalik

Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu ikasleei eta euskara ikasleei zuzendutako literatur lehiaketak

SAKANA

Markotegi Sarian Sakanan bizi-tokia edo ikastetxea duten ikasleek parte har dezakete eta lau sail ditu: narrazio laburra, poesia, komikia eta booktrailerra. Azken hau aurtengo berrikuntza da, azken bi urtetan egindako booktube sailari hartu dio lekua eta liburu baten bideo laburpen bat egitean datza. Markotegi Sarian lanak bidaltzeko epea martxoaren 31n bukatuko da, eguerdiko 15:00etan. Nanoipuin lehiaketa euskalduntzen ari den Sakanako edozein pertsonari zuzenduta dago, baita Mintzakide programako parte-hartzaileek ere parte har dezakete. Lanak aurkezteko epea martxoaren 31n bukatuko da ere.

Markotegi lehiaketan ikasmaiaren arabera banatzen dira kategoriak: LHko 3. eta 4. maila, 5. eta 6. maila, DBHko 1. eta 2. maila, DBHko 3. eta 4. maila eta Batxilergokoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena. Nanoipuin lehiaketaren mailak hiru dira: 1. maila A1 eta A2 mailako ikasleena; 2. maila B1 mailako ikasleena, eta 3. maila B2 eta C1 mailako ikasleena. Mintzakide programako parte

hartzaileek ezagutzaren pareko mailan hartuko dute parte.

Lanak originalak, aurrez sari-tu gabea, argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izanen dira. Gaia librea izanen da Markotegiko lehiaketaren booktrailerretan izan ezik. Kasu honetan, irakurritako euskarazko liburu bat aurkeztuko da eta liburuaren titulua, egilea edo egileak eta argitaletxea aipatuko dira. Gainera, ez dira bertso paperak onartuko eta kategoriaren arabera luzera desberdinak izango dituzte. Narrazio laburrak eta poemak ordenagailuz idatzirik aurkeztuko dira, 12 puntuko hizki tamaina erabiliko da. Komikiak zuri-bel-tzean edo koloretan aurkeztuko dira. Nanoipuin lanetan ez dira indarkeria, sexismoa, arrazakeria edo bestelako eskubide urraketak sustatzen dituzten lanak onartuko. Gutxienez 100 hitz izango dituzte eta gehienez 150.

Markotegi Sariko lanak goitizenez batez izenpetuko dira, gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira eta Sakanako Mankomunitatean aurkeztuko dira. Nanoipuin lanak Internet bidez bidaliko dira: euskara@sakanamank.eus.



Eskultura bere tokian

Altsasuk pairatzen duen "injustiziaren" aurrean Taberna Ibiltaria taldeak Altsasukoak Aske plataformari eta Altsasu gurasoak taldeari egindako oparia bere tokian jarri dute dagoeneko. Josu Aretxabaletak egindako eskultura Altsasuko udaletxearen aurreko lorategiaren alde batean jarri dute, Rufinoren kioskoa zegoen tokian.

Tximeleta-ren azken hegaldia

"Proiektu guztiek dute hasiera eta bukaera". Tximeleta taldeak atzo sare sozialen bidez jakinarazi zuen Azken hegaldia tour 2000-2020-ren kontratazioak zabalik daudela. Tximeletaren "azken hegaldiak" izanen dira, beraz, aurtengoak. Tximeleta taldea 2000. urtean sortu zen, eta taldeak esan duenez, 1000 kontzertutik gora eskaini ditu taldeak.



©TXIMELETAGARA



Juanjo Ollasagarre, lehenengoa ezkerrean, 'la hemen' liburuaren aurkezpenean. GIPUZKOA.EUS

"Omenaldia" izan daitekeen irakurraldia

Juanjo Ollasagarrearen lanak irakurriko dituzte gaur, ostirala, 19:00etan, Arbizuko herriko etxearen batzar gelan 'Ez da oro maitatzea norbera maitatzeko aitzakia?' egitasmoan. Idazle arbizuarra bertan egongo da

ARBIZU

Irakurle batendako irakurtzen dituen liburuen egilea aurrean izatea berezia da. Idazle batendako ere irakurleak aurrean izatea eta bere lana errekonozitua izatea garrantzitsua da. Gaur, Arbizun, Juanjo Ollasagarre herriko irakurleekin bilduko da "irakurraldi xume" batean. 19:00etan izanen da, Arbizuko udaleko batzar gelan. *Ez da oro maitatzea norbera maitatzeko aitzakia?* Ollasagarrek poema batean planteatzen duen galde-raren gainean ariko dira.


"Nik ez dakit. Agian omenalditxo bat da". Juanjo Ollasagarrek brometan "horrelako omenaldiekin testamentua" idazten hasiko dela esan du. Castillo Suarez idazlea aritu da gaurko "irakurraldi" antolatzen. Jendeak idazle arbizuarra idatzitako eta haiek aukeratutako testutxoak irakurriko dituzte idazlearen aurrean. "Horrelako zerbait izango da". *Ez da oro maitatzea norbera maitatzeko aitzakia?* da irakurraldira-ko aukeratu duten izenburua. "Ia hemen" poesia liburuaren azken poemaren bi lerro dira. Budismoaren inguruan hitz egiten du".

Ollasagarre "gustura" joango da Arbizura. Jendearekin egoteko eta "eskertzeko da jendeak zure testuak irakurtzea". Are gehiago, "nire azken urtetako matraka: tropelekoa izanik". Ollasagarrek hainbatetan azaldu duenez Bernardo Atxagaren eta Kirmen Uriberen edo Castillo Suarezen artean dagoen belau-naldikoa da, eta bere ustez, "ez zaigu kasu gehiagorik egin".

Gorputzak idaztea "eskatzen" badio ere momentu honetan "alferkeri dezentean" dagoela aitortu du idazleak. "Lanean beti ari naiz, zerbait egiten, baina fundamentuzko ezer". Arbizuarra ikastetxeei bideratutako euskal poesiaren antologia lantzen ari da Alai argitaletxerako, Goazen liburuak argitaratu duen argitaletxerako. "Horretan ari naiz orain; poemak aukeratzen". Boladak izaten direla azaldu du Ollasagarrek: "Gogoia daukat, baina diziplina falta zait. Kiro-larekin berdin gertatzen zait: normalean kirola egiten dut, baina orain ezta ere". Nobela bat idazteko ideia ez ezik, "egunero-egunero" egotea eskatzen duela gaineratu du.

Izen-emateko epea
Haur eta Lehen Hezkuntza
 otsailaren 3tik 7ra.

Ate irekitze eguna Egunero 9:00etatik 10:00etara.
 13:00etatik 15:00etara. 15:30etatik 17:00etara.

 **Altsasuko Korazonistak**
Corazonistas Alsasua
<http://corazonistasaltsasu.com>
 Telefonoa: 948562035



Lagun Onak elkarteko Santa Ageda korua. Bost-sei pertsona falta dira.

"Korua berriz ateratzeko haztegia zegoen"

Altsasuko Lagun Onak elkartean Santa Ageda korua sortu dute, eta bigarren urtez otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, kalera aterako dira. Juanjo Ganuza eta Miguel Angel Leal izan dira koruaren bultzatzaileak eta Idoia Ganuza da zuzendaria

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Iaz lehenengo aldiz urte askoren ondoren Santa Ageda bezperan atera zineten. Zergatik?

Juanjo. Bazkideren bat horrekin tematu zen, Mikel, esaterako eta haztegia zegoen. Gogoak zeuden. Bati esan, besteari... eta jendea animatu egin zen. Lehenengoan kuadrilla xume bat elkartu ginen,

ez oso handia, eta aurten handitu egin da. Nik uste honek aurrera egingo duela.

Miguel. Iaz akordeoi batekin hasi ginen eta aurten hirurekin. Gure maila handitzen ari da.

2 Lagun Onak tradizioa handia zuen koruak sortzeko, ez?

M. Garai batean elkarteak Santa Agedako koruak berreskura-

tu zituen. Aspaldi galdu ziren edo aurretik ez ziren egiten. Lagun Onak musikarien elkarte bat zenez, hau da, musikari asko zeudenez edo bereziki musikariek osatzen zuten, berrekuratzeko ideia izan zuten. Fraile bat etorri zen eta hil zenean berriz galdu zen. Uste dugu elkarteek herriko tradizioak berreskuratu eta herriko egin beharko lituzketela.

3 Esaterako, beste tradizioen artean Olentzero elkarteak bultzatu zuen, ez?

J. Bai, hemendik sortu zen. Orain ez, beste batzuek hartu dute ardua. Baina hemengo kide batzuk izan ziren bultzatzaileak. Haien artean San Roman.

M. Elkarte gastronomikoa bezala ezagutzen da, baina aisialdi eta kultura elkarte bat garelako jartzen du. Gastronomikoa ez da inon agertzen.

4 Duela zenbat urte galdu ziren koruak?

J. Asko. Ez dakit. Hamabost urte baino gehiago? Berreskuratu dugu eta nik uste bide handiko kontua izango dela. Hemen giro polita dago eta ez gara elkarteko kideak bakarrik, beste elkartetatik ere etorri dira.

5 Zein da Santa Ageda koroen tradizioa?

J. Tradizioa neguko solstizioarekin lotuta dago. Lurrari esnatzeko makilarekin kolpeak ematen dizkiogu. Kristautasunarekin berreskuratu zen santaren inguruko kondaira hori.

6 Idoia, nola iritsi zinen koruaren zuzendari izatera?

Idoia. Solfeo ikasi nuen eta gai honekin hasi zirenean, zuzendaria izatera animatuko ote nintzen esan zidaten. Baietz esan nuen, alde batetik, gauza berriak egitea gustatzen zaidalako, eta, bestetik, uste nuelako taldea ez zela aterako. Baina atera zen. Hemen nago taldea zuzentzen. Oso gustura ari gara.

7 Akordeoi batekin hasi, eta aurten hiru dituzue. Instrumentu-aren bat gehiago gehitu da?

I. Panderoak ditugu aurten ere, eta makilak, noski.

J. Momentuz ez. Hiru akordeoi-lariekin gustura.

M. Etorkizunean ikusiko dugu.

8 Zein abesti kantatuko dituzue?

J. Betikoak egiten ditugu. Haietako bi, *Santa Yageda*, Altsasukoak dira; Enrike Zelaia berreskuratu zituen. Alde horretatik erreperitorio bera da, antzinatek datorrena.

9 Zer moduz doaz entseguak?

J. Astero ordu bat inguru aritzen gara. Bi hilabete inguru daramagu. Ez gara oso abeslari onak, baina...

M. Urte honetan primeran ari gara. Aurreko urtean abestiak ezagutu gabe hasi ginen abesten, eta aurten behintzat abestiak ezagutzen genituen. Gu ez gara profesionalak, baina garrantzitsuena ongi pasatzea da. Hori da gure helburua.

10 Koru irekia da?

J. Bai. Ahoz aho zabaldu da eta jendea beste elkartetatik eta abesbatzatik etorri da. Pozik gaude. Gainera, badakigu Kukurrekako elkartetatik ere ateratzen direla eta gure nahia da egunean batera abestea. Beste elkarteak ateratzera animatu nahi ditugu.

11 Zein da plana?

J. 19:00etan elkartetatik aterako gara eta herrian buelta bat emango dugu. Kukurrekako jendearekin elkartuko gara, eta gero bakoitza bere kabuz.

M. Nekazariz jantziko gara eta bazkideak gure blusarekin.

I. Gurekin furgoneta bat eramango dugu hornidurarekin: edatekoa, pintxoak...

BAZKIDE SARITUAK

- Ines Satrustegi Ganboa (Arbizu)
- Alodia Alvaro Igoa (Etxarri Aranatz)
- Catalina Sala Iribarren (Irurtzun)
- Jesus M^a Olmos Amillano (Altsasu)

ILBELTZKO SARIAK:

1. SARIA:
 EKAINBERRI WOBAZULOAK: 2 SARRERA
 ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
 DONOSTIAKO AQUARIUMA: SARRERA BANA
 ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

